

**ESKOLAUMEEN**

**LITERATUR LEHIAKETA 2010**

**ORIO**



r k U l

Azala: Uxue Alberdi  
Legezko gordailua: SS 477/88  
Inprimaketa: Bizker grafikak (Lasarte-Oria)

# AURKIBIDEA

<i>Hitzaurrea. Ekain Zubizarreta</i>	.....
<i>Sofia eta Naiaren panpina. Naroa Arriaran</i>	.....
<i>Karrera luzea. Anax Esnal</i>	.....
<i>Musika. Maddi Esnal</i>	.....
<i>Batuketak. Maddi Etxeberria</i>	.....
<i>Piratak eta munstro erraldoia. Unax Pikabea</i>	.....
<i>Zarauzko malekoian. Laida Urbitarte</i>	.....
<i>Noiz ez du egingo. Julen Lasarte</i>	.....
<i>Itsasoa. Eneko Mujika</i>	.....
<i>Juneren ametsak. Uxue Sarasua</i>	.....
<i>Irekitzen ez zen armairua. Asier Zubizarreta</i>	.....
<i>Gaua. Irati Egibar</i>	.....
<i>Ostadarra. Ixiar Mendizabal</i>	.....
<i>Baserriko animaliak. June Arruti</i>	.....
<i>Kafe kontuak. Iñaki Sarasola</i>	.....
<i>Erregaiak. Nagore Gonzalez</i>	.....
<i>Muxua. Aratz Oliden</i>	.....
<i>Aritz Aranbururen klaseak. Jon Arriola</i>	.....
<i>Gau bat ilargian. Uxue Alberdi</i>	.....
<i>Amona eta Kometa. Alex Garzon</i>	.....
<i>Krisia. Haritz Miera</i>	.....
<i>Gezurrak ez du alde onik. Leire Izagirre</i>	.....
<i>Maite itsuaren abenturak. Nerea Perez-Oliden</i>	.....
<i>Leihotik zurekin hitz egiten. Aitor Herranz</i>	.....
<i>Aingura. Unai Zubizarreta</i>	.....
<i>Espero gabeko oporrak. Andoni Garate</i>	.....
<i>Iñigok eta nik argitutako misterioa. Maialen Rodriguez</i>	.....
<i>Mehatxuak. Xabier Makazaga</i>	.....
<i>Bizitzak abenturak dakarzki? Alaitz Miera</i>	.....
<i>27 egun Tifleten. Larraitz Arregi</i>	.....
<i>Amesgaiztoa. Ane Arriola</i>	.....
<i>Ilargia. Ander Beldarrain</i>	.....
<i>Zu. Gratxina Lertxundi</i>	.....
<i>Hankak lurrean ezartzean... Ander Orbañanos</i>	.....
<i>Ez hadi erratu. Goiuri Unanue</i>	.....
<i>Denbora asko igaro da. Ander Atorrasagasti</i>	.....
<i>Amari zuzenduta. Ekiñe Miralles</i>	.....

# Hitzaurrea

Aurrena, zorionak denoi! Asko pozten naiz horren lan onak ikusteaz Orioko literatura lehiaketan. Espero dut gozatuko duzuela sariaz. Niri tartean sartzeko aukera eman didate, eta ez dut galduko, baina ez dut zuek adinako meriturik. Lasai, ez naiz asko luzatuko.

Hasteko, irakasleak derrigortuta zenbatek parte hartu duzuen jakin nahi nuke. Bat baino gehiago izango zarete ziur! Zuen bai, zortea!

Ez da makala horrelako sari bat jasotzea! Pozik egon behar zenukete: zuen saria jaso duzue, herriaren aurrean sari-banaketa ere izan duzue, zuen lanak argitaratuko dituzte eta ziur etxean ere ospakizunen bat egingo zenutela! Gurasoak, aitona-amonak, lagunak, irakasleak... Denak pozik egongo dira!

Nik behin eduki nuen zorte hori eta, irabazi nuela jakin nuenean, asko poztu nintzen, egun politak pasa nituen. Hala ere, onena ez zen hori izan. Lehenagotik ere hartua nion gustua idazteari, baina orduan gehiago zaletu nintzen. Gustura idazten dut orain; gehienbat niretzat, baina noizbehinka baita besteek irakur dezaten ere.

Mundu ederra da literatura eta marrazketarena. Ezin da hitzez azaldu une batzuetan idatzi edo marrazteak sortzen duen gozamen sentsazioa. Erabat lasaitzen zaitu batzuetan, biziberritu eta alaitu besteetan, eta beste batzuetan penak askatzeko balio du. Errealitatea ikusteko beste modu bat ere ematen du zenbaitetan, urrutiko lekuak irudikatu eta han zaudela sentitzeko aukera. Denerako balio du! Aberastasuna ez du irakurketak bakarrik ematen, idazteak eta marrazteak ere asko erakusten digute, eta, batez ere, bizirik sentiarazten gaituzte, egiten dugunaz harro.

Horregatik, gogoko duzuenak eta baita derrigortuta idatzi duzuenak ere idaztera eta marraztera gonbidatzen zaituztet, eta zer arraio, berriz beste sari batzuk irabaztera!

*Ekain Zubizarreta*



# Sofia eta Naiaren panpina

Baziren behin hi ahizpa, Sofia eta Naia izena zuten.

Panpina asko zituzten etxean, baina bazegoen bat biek asko maite zutena. Txakur panpina zen eta Klara zuen izena.

Egun batean gauza harrigarria gertatu zitzaien: Klara benetako txakurra zela konturatu ziren. Hasieran ez zuten sinesten, eta gero kezkatu egin ziren, gurasoek ez zutelako txakurrik nahi etxean. Sekretuan gordetzea erabaki zuten.

Baina hurrengo egunean, aitak eta amak jakin zuten txakur bat zegoela Sofia eta Naiaren logelan. Arazoa konpontzen saiatu ziren. Interneten ere sartu ziren, ea norbaitek adoptatuko zuen, baina ezer ez.


Naia eta Sofia haserretu egin ziren. *Klara ez bada hemen geratzen ez gara ikastolara joango!* esan zuen Naiak, eta Sofiak *Jupi!* gaineratu zuen.

Egun horretan Naia eta Sofia gelan zeuden Klararekin. Klara saltxitxa txakurra zen eta askotan astintzen zituen bere belarri luzeak. Baina bat-batean bere belarriak azkar-azkar astindu zituen eta hegan hasi zen gela guztian zehar. Sofia eta Naia harrিতuta zeuden eta Klararekin lorategira joan ziren. Han saskibaloian jolasten hasi ziren eta Klara oso ona zela ikusi zuten. Ondoren, futboleko hasi ziren eta Klarak gol pila bat sartu zituen.

Horrela, Naia eta Sofiaren gurasoek ikusi zuten Klara oso txakur berezia zela eta ezin zutela etxetik bidali. Bostak oso zoriontsu bizi izan ziren.

Eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta agertu dadila Orioko plazan.

*Naroa Arriaran*



*Naroa Arriaran*

# Karrera luzea

Baziren behin kotxe bat eta moto bat. Karrera egin nahi zuten eta beti elkarri pika-tzen ibiltzen ziren:

—Nik irabazi baietz!

—Bai, zera! Ni azkarragoa nauk eta...

Biak Orion bizi ziren eta, halako batean, karrera egitea erabaki zuten. Herritik irten eta errepidera zihoazela, autobus batekin elkartu ziren.

—Nora zoazte hain azkar?

—Karrera egin behar diagu eta presaka goazak.

—Nik ere karreran parte hartu nahi diat —esan zuen autobusak.


—Hik gurekin karrera? Ikustekoa!

Horrela, hirurak joan ziren herriko irteerara karrera egitera. Han lore txiki bat zegoen dena ikusten. Kolore asko zituen eta berak emango zien irteera, denak batera hasteko. Hasi ziren karreran; baina, bat-batean, gasolina gastatzen hasi zitzaaien. Saiatu ziren eskuekin bultzatzen, aldapan behera jartzen, haizea harrapatzen...

Tiraka eta tiraka, azkenean, gasolindegian elkartu ziren hirurak. Barrez lehertu ziren denak han elkartuta, eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Orioko bidean.

*Anax Esnal*





*Sofia Lertxundi*

# Musika

Gitarrak grin-grin,  
danborrak bron-bron,  
txirulak fli-fli,  
txindatak txin-txin,  
Maddiri buruan  
maitasunak bor-bor.

*Maddi Esnal*


# Batuketak

Hitza + txikia  
ateratzen zaigu  
HIZKIA.

Marras + txikia  
ateratzen zaigu  
MARRAZKIA

Ondo ulertu baduzu,  
gustatuko zaizu nire  
OLERKIA

*Maddi Etxeberria*



*Ana Manterola*

# Piratak eta munstro erraldoia


XI. mendean, piraten garaian, bazen pirata talde jator bat. Egun batean, itsasoan nabigatzen ari zirela, nahi gabe, leku misteriotsu batera iritsi ziren. Dena lainoz estalita zegoen eta inguruan usain berezi eta arraroa zegoen. Halako batean, konturatu ziren han itsasontzi pirata bat hondoraturik zegoela.

Beren artean zegoen piratarik ausartena hondoratutako itsasontzira sartu zen. Dena ustelduta zegoen eta kontu handiz ibili beharra zuen, bestela erori eta mina egiteko arriskua zuelako. Bat-batean, usain berezi hura kiratsa bihurtu zen. Pirata, kontu handiz, kiratsa zetorren alde horretara gerturatu zen. Han, erdi lo, munstro itsusi eta erraldoi bat zegoen eta, munstroaren ondoan, altxor eder bat. Piratak ezin zuen sinetsi. Zaratarik egin gabe, bere itsasontzira itzuli zen eta lagunei guztiaren berri eman zien.

Piratek kanoiak, ezpatak eta zituzten arma guztiak hartu eta altxorraren bila joan ziren. Pirata guztiak, ausardiaz eta zuten indar guztiarekin, munstroa akabatzeko prestatu ziren.

Munstroa esnatu zen eta, piratak ikustean, guztiz haserretu zen. Orroka hasi zen; baina piratek, ausardi handiz, munstroa hil eta altxorra bereganatu zuten.

*Unax Pikabea*



*Iker Moreno*


# Zarauzko malekoian

Goiz batean, Zarauzko malekoian, Laida eta Xola paseatzen ari ziren. Laida neska jatorra zen eta Xola, berriz, txakur txiki eta zintzoa. Laida eta Xola oso gustura zebiltzan.

Malekoian txakurrak paseatzen ari ziren eta denek jolasteko gogoia zuten. Laida nekatu egin zen eta bere lagun batekin kafetegira joan zen lasai egotera. Bitartean, Xola eta beste txakurtxo bat jolasten hasi ziren. Halako batean, Xolak salto bat eman zuen eta itsasora erori zen. Olatu handiak zeuden eta Xolak ia ezin zuen igeri egin. Beste txakurra zaunkaka hasi zen eta, orduan, Laida gertatzen zenaz konturatu zen. Laida laguntza eske hasi zen. Inguruan surflari talde bat zebilen eta berehala konturatu ziren zen gertatzen ari zen. Berehala, itsasoan sartu ziren eta Xola ateratzea lortu zuten.

Laidak eskerrak eman zizkien eta, handik aurrera, txakurtxoaz gehiago arduratuko zela agindu zien.

*Laida Urbitarte*



*Gorka Amas*

# Noiz ez du egingo


Fuuuu haizea  
goizean,  
fuuuu  
gauean,  
fuuuu  
noiz ez du haizeak egingo  
fuuuu?

Plop-plop-plop euria  
goizean,  
plop-plop-plop  
gauean,  
plop-plop-plop  
noiz ez du euriak egingo  
plop-plop-plop?

Brun-brun-brun trumoa  
goizean,  
brun-brun-brun  
gauean  
brun-brun-brun  
noiz ez du trumoiak egingo  
brun-brun-brun?

*Julen Lasarte*





*Rosa Atorrasagasti*

# Itsasoa

Ssssssssss!  
Olatuak itsasoan.  
Ssssssssss!  
Ozeano Barean.  
Ssssssssss!  
Itsasontzirik ez dagoen egunean.  
Ssssssssss!  
Arrainak lasai igerian.  
Ssssssssss!  
Marea altuan.  
Ssssssssss!  
Dena bakean.

*Eneko Mujika*

# Juneren ametsak

Bazen behin June izeneko neska polit bat. Oso alaia eta bihurria zen. Lagun asko zituen eta bere lagunekin ondo pasatzen zuen.

Gau euritsu eta haizetsu batean, afaldu eta telebista pixka bat ikusi ondoren, ohera joan zen. Bere gustuko panpina hartu eta gero, ametsetan hasi zen.


Ametsetan zegoela, dinosauro berde eta likatsu baten gainean azaldu zen. Dinosauroa mugitzen hasi eta June itzulipurdika erori zen haren gainetik. Oihuka hasi zen eta esnatu egin zen.

Juneren gurasoak gelara joan ziren beldurtuta, ea zer gertatzen zitzaion jakitera. June ametsetan zegoela ikusi zutenean, lasaitu egin ziren.

Hurrengo goizean gurasoek galdetu zioten ea ze amets egin zuen gauean, baina June ez zen ezertaz gogoratzen. Gosaldu eta, egunero bezala, ikastolara joan zen. Ikastolan zegoela, dinosauro likatsu eta berde bat burura etorri zitzaion. Orduan konturatu zen gauean amestutako ametsa zein izan zen.

Egunak joan eta ametsa ahaztu egin zitzaion.

Gau batean, berriro ere ekaitza egon zen eta, lo hartu zuenean, ametsetan hasi zen.



*Malen Atxega*

Baina oraingoan ikusi zuen dinosauroa ez zen likatsua. Oso dinosauro polita zen eta ez zegoen bakarrik; haren ondoan dinosauro txiki bat zegoen: bere kumea zen.


June berehala konturatu zen bere laguna izan nahi zuela, eta berarekin jolastu nahi zuela. June, beldurtu gabe, berengana inguratu zen eta hitz egiten hasi zitzaien.

Dinosauro txikiak esan zion Loti izena zuela, lo asko egiten zuelako. Junek barre egin zuen eta Lotiri ere barregura eman zion. Lotik beste lagun batzuk zituen eta June berengana eraman zuen. Roki eta Troki ziren bere lagunik onenak; berekin ondo pasatzen zuen. Troki zuhaitzaren hostoak bezain berdea zen eta Roki eguzki lorea bezain horia.

Hurrengo goizean Juneren amak esnatu behar izan zuen, eta konturatu zen June oso irribarretsu zegoela eta galdetu zion ea zer amets egin zuen. June, oraingoan, denaz gogoratzen zen eta amestutako guztia kontatu zion. Bere ama, hori dena jakindakoa, oso pozik sentitu zen June horrela ikusita.

Egun horretatik aurrera, June ez zen gehiago beldurtzen ekaitza egiten zuen gaue-tan, bazekielako amestuko zuela bere lagun dinosauroekin: Loti, Roki, Troki eta Lotiren amarekin, eta ametsean jolasean arituko zirela Juneren amak goizean esnatu arte.

*Uxue Sarasua*



*Mirari Bergado*

# Irekitzen ez zen armairua

Bazen behin, nire amonaren etxean, armairu zahar-zahar bat, giltzapetuta zegoena aspalditik.

Amonaren etxeko armairutik pasatzen ziren bakoitzean galdetzen genion amonari:

—Zergatik ez da irekitzen atea?

Eta amonak erantzuten zien giltza, aspaldian, galdu egin zela.

Amonaren biloba guztiak giltza bilatzen jartzen ginen egunero eta kalera ere ateratzen ginen, bere etxean egon zirenei galdetzeko. Baina inork ez zekien giltza non zegoen.

Egun euritsu batean, *bingo!* amonaren bilobetako batek armairuaren azpian aurkitu zuen giltza zahar-zaharra.


Atea ireki eta han zeuden Egiptoko jainko guztiak. Denak harrিতuta geratu ginen. Hain distiratsuak ziren! Handik bost minutura Egiptoko jainko guztiak altxa egin ziren eta, gure harridurarako, Egiptora joateko bidea ireki zen gure begi aurrean. Besteok ere, beldurtuta, beren atzetik joan ginen.

Egiptora iritsi ginenean, bero handia egiten zuen. Orduan, Nilo ibaira joan ginen, freskatzeko.

Eta, hortik aurrera, tarteka Egiptora joan nahi dugunean, armairuko atea irekitzen dugu.

Horregatik, giltza ondo-ondo gordeta daukagu.

*Asier Zubizarreta*



*Ramunas Almanaitis*

# Gaua

Izarrak zeruan  
salto eta salto  
dabiltza kantuan,  
ilargiaren inguruan.  
Nekatu dira izarrak  
eta lotan daude,  
ilargiaren magalean.  
Kulunka-kulunka  
izarrak lokartuz,  
eguzkia datorren  
bitartean.


*Irati Egibar*

# Ostadarra

Erroman jaio zaigu  
gure zubi koloretsua.  
Hain da ederra  
hain distiratsua.  
Ilunabarrean zeruan  
hodei beltz euritsua;  
beste aldetik, berriz,  
eguzki alaitsua,  
eta erdi-erdian,  
ostadar indartsua.

*Ixiar Mendizabal*





*Nandar Elghailani*

# Baserriko animaliak

Bazen behin Urola Kostako baserri bat. Gipuzkoako handiena zen. Baserria ur jauzi baten ondoan zegoen. Bere jabea, Pello, oso gaiztoa zen eta, horregatik, bakar-bakarrik bizi zen. Inorekin ez zeukan harremanik, bakarrik bere animaliekin. Baina bere animaliak oso gaizki tratatzen zituen; batez ere, Bizkor zaldia, Moko oilarra eta Ttunttun ahatea. Zaldia oso handia eta listoa zen. Oilarrak mokoka indar handiz eta soinu asko egiten zuen. Ahatea tontolapikoa zen eta oso txintxo.

Bizkor zaldia baserrian jaio zen. Ama bost urte zituela hil zitzaion. Amak zeukan janari guztia ematen zion eta berak ez zuelako ezer jaten hil zitzaion. Zaldia goizeko bostetan jaikitzen zen, Pellorekin herrira joateko, azokara, eta goizeko hamaiketan etortzen ziren, kargatuta egindako erosketa guztiekin.

Ttunttun ahatea beste zortzirekin batera jaio zen. Hazi zirenean, beste zazpiak azokara eramane zituzten saltzera; baina, zortzigarrena tontolapiko xamarra zenez, otarretik erori egin zen eta baserrira itzuli zen berriz. Orduan, Pellok baserrian geratzen utzi zion.

Moko oilarra urte bat eta erdi zituela etorri zen baserrira. Eta, orduan, Bizkor eta Ttunttunekin bizi zen. Moko indartsua zuelako, Pellok errepidean zeuden harri guztiak mokoarekin etxera ekartzeko eskatzen zion, gero harrizko txabola bat egiteko. Goizean bakarrik uzten zion lasai egoten.

Pellok animaliak ikaragarri gaizki tratatzen zituen: goizean goiz jaikiarazi, janari gutxi eman, jipoitu... Eta animaliak aspertzen ari ziren. Pellori esaten zioten ez zeudela gustura, baina kasurik ez zuen egiten. Orduan, bilera bat egin zuten:


—Baserritik alde egin behar dugu! —esan zuen zaldiak.

—Baina, horretarako, plan bat behar dugu! —esan zuen oilarrak.

—Idea bat daukat! —esan zuen Ttunttunek—. Moko eta ni Bizkorren gainean jarriko gara eta, Pello lo dagoen bitartean, hesia saltatuko dugu eta ospa egingo dugu. Bihar joango gara eta, horretarako, goizean goiz jaiki behar dugu.

Goiza iritsi zen eta plana martxan jartzeko ordua zen. Pello lotan zegoen eta, isil-isilik, hesia saltatu eta basora joan ziren. Berek uste zuten erregeak bezala biziko zirela, baina...

Basoan zeudela, gosea jarri zitzaien eta janari bila joan ziren. Sagarrondo bat aurkitu zuten eta oilarra, hegan eginez, saiatu zen, baina altuegi zeuden sagarrak. Zaldiak hankarekin zuhaitza jotzen zuen, baina ez zen sagarrak erortzen. Ahateak hegoak luzatzen zituen, baina ez zen heltzen. Animaliak gosez geratu ziren.



*Elene Elizondo*

Kobazulo bat aurkitzera joan ziren, gaua han pasatzeko. Asko ibili eta gero, aurkitu zuten eta, barrura sartu zirenean, otso batzuk zeuden. Otsoek, animaliak ikusi zituztenean, haiek jaten saiatu ziren. Animaliek ihes egin zuten; basoa ez zuten oso ondo eza-gutzen eta, beraz, denbora osoan aurrerantz jarraitzen zuten, otsoak atzetik zituztela. Bat-batean ur jauzi batera iritsi ziren. Ez zekiten zer egin: otsoen afaria izan edo uretara salto egin. Uretara salto egitea erabaki zuten eta, orduan, otsoek alde egin zuten.

Baina Ttunttunek eta Mokok ez zekiten igeri egiten eta Bizkorren gainean jarri ziren. Ibaiak zati hartan ikaragarriko indarra zeukan eta aurrerantz bultzatzen zien. Aurrerago, harri handi bat zegoen eta harriari heldu zioten. Baina ez zekiten nola iritsi ibaiertzera. Mokok bere eskuarekin probatu zuen, ea heltzen zen belarretara, baina ez zen iristen. Ttunttunek ideia bera eduki zuen, baina hura ere ez zen iristen. Bizkorrek ere probatu zuen eta iritsi zen. Ttunttun eta Moko bere gainetik pasa ziren, baina Bizkorrek ez zekien nola egin. Mokok eta Ttunttunek makil batekin laguntzen saiatu ziren, baina gehiegi pisatzen zuen. Arazo larri baten aurrean zeuden.

Bitartean, Pello baserri osoan ari zen begiratzen, baina ez zituen aurkitzen animaliak. Soka luze bat eta eskopeta hartu zituen eta basora joan zen. Bidean hiru otsorekin topatu zen eta eskuetan zeraman eskopetarekin hil zituen hamar segundo pasa baino lehen.

Pellok zaldi oinatz batzuk aurkitu zituen eta haiei jarraitu zien. Denbora guztian aurrerantz jarraitzen zuen eta bat-batean oinatzak bukatu egin ziren. Ur jauzi batera iritsi zen eta han Bizkor, Ttunttun eta Moko ikusi zituen. Azkar-azkar joan zen berengana.

Bizkor ikusi zuenean ia-ia hil beharrean, zeraman soka eskuan lotu eta Bizkorri bota zion. Hark ahoarekin heldu zion eta, ur ertzera iristerakoan, Pello uretara erori zen eta Bizkor belarretara atera zen. Pello ibaian zegoen, harriari helduta. Animaliek ez zekiten zer egin: Pellori lagundu edo harri gainean han uztea. Mokok eta Ttunttunek han uztea nahi zuten eta Bizkorrek ez zekien zen egin. Nola bihotz onekoa zen, itotzen ikusi zuenean, laguntzen hasi zen. Pelloren soka hartu eta bota egin zion. Hartu zuen hortzekin eta, tiraka, Pello belarretara atera zuen.

Orduan, Pello denbora guztian eskerrik asko esaten egon zen.


—Nola ahalko dizuet ordaindu? —esan zuen Pellok.

—Mmm!... Badakit nola ordainduko diguzun! —esan zuen Bizkorrek—. Guk esandakoa egingo duzu. Guk ez dugu lanik egingo eta gure laguna izango zara.

—Bai, nahi duzuen egingo dut! —esan zuen Pellok.

Orditik hona, oso pozik bizi dira eta Pellok oso ondo tratatzen ditu. Erregeak bezala bizi dira. Pellok oraindik egunean bost aldiz esaten dio eskerrik asko Bizkorri.

*June Arruti*



*Jon Idarreta*

# Kafe kontuak

Bazen behin Arantxa izeneko andre bat, Azpeitikoa. Irakaslea zen, 4. mailakoa. 50 urte zituen eta oso zintzoa, jatorra eta irakasle ona zen. Lau ziren familian: bi seme, Oihan eta Estebe, eta senarra, Juan izena zuena. Oso familia zoriontsua zen. Aitonamonak Bilbon bizi ziren. Oihan eta Estebek oso gutxitan ikusten zituzten, urte zaharretan eta saninazioetan.

Arantxari informatika asko gustatzen zitzaion. Asko erabiltzen zituen e-posta, Tuenti, Twiter... beti horrelakoetan zebilen. Bidaiatzea ere gustatzen zitzaion: Benidormen, Colombian, Parisen, Hanburgon, Perun... ia mundu guztian izana zen. Eta horregatik zituen hainbeste lagun, oroigarri eta, batez ere, herri bakoitzeko kafe desberdinak.

Arantxa zale-zalea kafe zalea zen. Kafea asko gustatzen zitzaion. Kafea ura bezala edaten zuen. Egunean hirurogeita hamazazpi kafe hartzera ere iritsi zen: goizean hamaika, hamaiketan hamabi, bazkalostean beste hamaika, arratsaldean hamabi eta gauean gelditzen direnak.

Azkenaldian, buruko minez eta urduri zebilela konturatu zen eta medikuarengana joan zen. Medikiak, hainbeste kafe hartzen zituela entzutean, esan zion:

—Arantxa, aztertu zaitut eta kafea izango da kalte egiten dizuna. Ezin duzu hainbeste kafe hartu. Tentsioa oso altua daukazu eta oso arriskutsua da hori.

—Eta nire hirurogeita hamazazpi kafeak, zer?

—Zuk ikusi, baina bihotzeko atakea emateko arriskuan zaude.

Orduan, erabaki zuen kafe kopurua gutxitzea. Hiru besterik ez zituen hartuko: goizean, bazkalostean eta arratsaldean.


Medikuak, badaezpada ere, Arantxaren senarrari deitu zion eta esan zion emazteari hiru edo lau kafe baino gehiago ez uzteko hartzen.

Behin Arantxa, eskolatik ateratakoan, eguneko azken kafea hartzera joan zen eta, zer gertatuko eta, kafetegia itxita zegoen. *Hiletagatik itxita* jartzen zuen atean. Bestera joan eta uraren hodiedan aberia bat zegoela eta ezin zutela kaferik zerbitzatu esan zioten. Arantxa gero eta larriago jartzen ari zen.

Eta zer egingo eta etxera joan eta kafea hartu nahi zuen, baina etxean kaferik ez zegoen. Goizean utzitako paketea ez zegoen han.

Erostera joan zen eta han ere ez zegoen kaferik. Guztia saldu omen zutela esan zion dendariak.

Orduan pentsatu zuen:



*June Arruti*

—Norbait niri kafea kentzen ari zait...

Bere senarra izan zen kafea etxean ezkutatu zuena, dendariari emazteari kaferik ez saltzeko eskatu ziona, gezurrezko kartela jarri zuena... Eta Arantxa, hori jakitean, asko haserretu zen Juanekin:

—Oso haserre nago, baina ez dut hirugarren kafea hartu... eta ondo nago!

Eta kafearen dieta egiten hasi zen: handik aurrera egunean hiru besterik ez zituen hartuko.

Eta geroztik hilabete batean hiru kafe hartzen ditu. Azkenerako, konturatu zen ez zela hain kafe zalea; ez zuela kafea hainbeste behar eta orain ez ditu bi kafe besterik hartzen. Eta buruko minik ez du, ez da urduri jartzen... senarrari eskerrak.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Orioko hondartza zoragarri honetan.


*Iñaki Sarasola*

## Erregaiak

Erregaia kotxetan,  
erregaia motorretan  
eta autobusetan,  
erregaia toki gehiegitan.  
Kutsadura fabriketan,  
kutsadura tximinietan  
eta ibaietan,  
Lurra kutsatuta toki gehienetan.  
Hau nahi nuke aldatu,  
bizikletan bidaiatu,  
trenean garraiatu  
eta oinez nekatu.

*Nagore Gonzalez*





*Nagore Gonzalez*

# Muxua

Udaberria dator,  
kukuak kantari,  
loreak hazten doaz,  
mendian ugari.  
Zein opari polita  
nire aitak amari:  
muxu bat eman dio  
nire ama Ainhoari.

*Aratz Oliden*

## Aritz Aranbururen klaseak

1999. urtean bazen surflari bat, Aritz Aranburu izena zuena. Behin, Zarauzko hondartzan zegoela, klaseak ematea pentsatu zuen; horrela, dirua irabazi ahal izango zuen, berari gustatzen zitzaion surf taula erosteko. Pentsatu eta aste batera bere ideia aurrera eramateko oharrak idatzi zituen, eta Zarautzen barrena itsatsi zituen jendeak ikus zitzan:

ARITZ SURFLARIA KLASEAK EMATEN HASIKO DA

HASIERA: ABUZTUAREN 8A

10 URTETIK GORAKOENTZAT


GOIZEKO 9:00ETATIK 11:00ETARA

PREZIOA: 50 EURO

OHARRA: TAULA OSATUTA EKARRI BEHAR DA

Jende askok eman zuen izena. Horien artean bi anai apuntatu ziren: Titin eta Xala. Bi anaiek oso gaizki hasi zuten lehen eguna, izan ere, taula eramatea ahaztu baitzitzaien.

Orduan, Aritzek utzi zien bere taula bat. Biek utzitako taula nahi zutenez, bat taularen alde batetik eta bestea bestetik, tiraka hasi ziren, taula erditik hautsi zuten arte. Taula oso ona zen; gainera, originala zen. Aritz lur jota geratu zen; horrenbeste lan egin eta gero lortutako taula horrela haustea onartezina zela pentsatu zuen. Haserreturik bidali zituen uretatik eta segundo bat baina lehenago uretatik kanpo zeuden biak.



*Kelly Latorre*


Hurrengo egunean bi anaiak han etorri ziren taula berriarekin, taularen erdian, ingelesez idatzirik, hitz batzuk zeuden: *I love Titin and Xala*. Aritzek hitz hauei ez zien garrantzi handirik eman eta uretara sartu zen taula eskuetan harturik, ikastaroan izena eman zuten hurrei surf egiten irakasteko. Bertan, taularen gainean aurkitzen zela, konturatu zen bi anaiek ekarritako oharren tinta ez zegoela erabat lehorturik eta horren ondorioz tripan *I love Titin and Xala* itsatsirik geratu zitzaiola. Korrika atera zen uretatik lotsagatik eta, gainera, ikusi zuten guztiek barre egin zioten. Horregatik, gorri-gorri jarririk, aldatzera joan zen. Aritz nazkaturik zegoen Titin eta Xalarekin, ez baitzioten bakean uzten ikastaroak lasai ematen. Horregatik pentsatu zuen berak ere horrelako bihurrikeria bat egingo ziela hi umeei.

Tintarena pasatu eta handik aste betera, Aritz aldageletan zegoen beste ikastaroko haur guztiekin. Egun hartan, beste guztietan bezala, Titin eta Xala falta ziren, izan ere, goizero berandu iristen baitziren. Aritzek bere motxilan hainbat pilota gorde zituen, bi bihurriek botatzeko. Azkenean, iritsi ziren bi mutilak eta, orduan, Aritzek motxilatik pilotak atera eta bota egin zizkien. Titin eta Xalari ez zien denborarik eman pilotak saihesteko eta biak lurrera erori ziren, ipurdiko handi bat hartuz. Ikastarora izena emanda zuten haur guztiak barrez hasi ziren; eta, noski, Aritz ere bai.

Titinek eta Xalak mendekua nahi zuten, lotsa pasatu baitzuten guztien aurrean egin zien bihurrikeriarengatik; izan ere, berei ez zitzaien batere gustatu beste guztien aurrean horren gaizki geratzea.

Bi hurrek, mendeku hartzeko, orri txuri batean *Eroa nago!* jarri zuten idatzirik eta, zelo pusketa batekin, Aritzi bizkarrean itsatsi zioten. Ikastaroko haur guztiak, hura irakurri zutenean, barrez lehertzen hasi ziren. Aritz aldageletatik atera zen, harriturik, ez baitzekien zergatik ari ziren haur guztiak barrez. Kanpora irtetean, bertan zeuden bere lagunak bizkarrean itsatsirik zuen papera kendu zioten eta eskura eman, berak irakur zezan. Irakurri zuenean, haserretu egin zen. Orduan, pentsatu zuen kartoizko taula egitea eta, bi anaiak ibiltzen zirenean, erditik puskatzea. Hurrengo eguna iritsi zenean, esan zien: *Hartu taula hau! Finagoa da eta azkarrago joango zarete*. Uretara sartu eta, gainean jartzean, taula erditik hautsi zen eta Aritz hasi zitzaien gutxiago jan behar zutela, taula horrek 100 kilo eraman zitzaizkeela, eta denak barrez hasi ziren eta lotsatuta joan ziren Titin eta Xala.

Titin eta Xala mendeku handiago bat pentsatzen hasi ziren. Interneten begiratu zuten Aritzi zerk ematen zion beldurra eta jakin zuten marrazoak zirela eta kartoikin marrazo bat egin zuten. Hurrengo egunean Titin bakarrik azaldu zen, Xalak eman behar baitzuen marrazoa. Klasea ematen ari zirela, Xala hondartzaren beste aldetik sartu zen kartoizko marrazoarekin. Surfariak zeuden lekura iritsi zenean, Xala marrazoa ateratzen hasi zen eta Aritz segituan irten zen uretatik; gero konturatu zen marrazoa kartoizkoa zela. Aritzek, orduan, pentsatu zuen azken egunean zigorra jartzea Titin eta Xalari. Bazekien Titin eta Xalari ez zitzaizela gustatzen korrika egitea korrika egiteagatik eta, beraz, hondartzari 10 bira ematea eskatu zien.



*Maidar Uranga*

Txakurra eta katua bezala ezin zirela bizitza osoan aritu pentsatu zuten Titinek eta Xalak eta, beren kirola, agian, pilota izango zelakoan, beste batengana joan ziren adarra jotzera.

*Jon Arriola*

## Gau bat ilargian

Bazen behin Anje izeneko mutiko bat eta bere ametsa ilargira joatea zen. 12 urte zituen eta Beizama izeneko herri txiki batean bizi zen. Hain herri txikia zenez, herri-tar guztiek elkar ezagutzen zuten. Bere amak Miren zuen izena, aitak Alberto eta arre-ba txikiak, berriz, Nagore. Nagorek 8 urte zituen eta beti Anje izorratu nahian ibiltzen zen, gainontzeko anai-arreba guztiak bezalaxe. Han ibiltzen ziren biak borrokan ama etorri arte eta, ama etorritakoan, zigortu egiten zituen bakoitza bere gelara bidaliz, beti borrokan baitzeuden. Egun batean, Nagore eta Anje borrokan ari zirela, amak, norma-la den bezala, bakoitza bere gelara bidali zituen eta Anje, haserretuta, marrazki bat egi-ten hasi zen: ilargia, estralurtarrak, espazio-ontzia... Oso ondo marrazten zuen eta noizbait marrazki lehiaketa bat ere irabazi zuen. Horretan ari zela, irratian marrazki lehiaketa bat zegoela entzun zuen eta egiten ari zen marrazkiarekin parte hartzea era-baki zuen. Hurrengo egunean bertan aurkeztu zuen bere marrazkia irratian entzun zuen lekuan bertan. Handik egun batzuetara, berriz ere irratian, bere izena entzun zuen. Bera izan zen irabazleetako bat!


Egun hartan, oso nekatuta zegoen eta afaldu eta segituan ohera joan zen. Baina Nagore nahiko bihurria zenez, Anje esnatu zuen bere eskusoinu txikia joaz. Anje oso haserre zegoen Nagoreekin eta amari esan zion. Amak zigortu egin zuen, baina zigor desberdina jarri zion: aste betean gurasoek jostailu guztiak kendu zizkioten. Nagorek Anjeri barkamena eskatu nahi zion, baina Anjek ez zion kasurik egiten. Astea pasa eta gero, Nagorek gurasoei eta Anjeri barkamena eskatu zien, baina oso lotsatuta:

—Zera esan nahi nizuke, Anje... bar-ka-tu.

—Bai, barkatzen dizut, baina ez egin horrelakorik berriro! —erantzun zion Anjek.

—Ez! Jakina!

Horrela, adiskidetu egin ziren eta gau hartan guztiak pozik oheratu ziren. Hurrengo egunean, lagunekin parkera joan zen Anje, eta ezkutaketan ibili ziren. Han zeudela, oso majoa zen gizon bat gerturatu zitzaion Anjeri eta, hizketan hasi zirenean, zera esan zion gizonak... astronauta zela! Gizon hura Armstrong zen eta Anjerengana hurbilduta hauxe esan zion:



*Ruth Atxega*

—Kaixo, Anje! Ezagutzen nauzu, ezta? Amstrong naiz. Lehiaketara aurkeztu zenuen marrazkia ikusi genuen nik eta nire lagunek. Pentsatu genuen zerikusia zeneukala gure lanarekin eta hauxe galdetu nahi dizugu: gustatuko al litzaizuke gurekin ilargira etortzea?

—Zer? Benetan zabilta, hala? Ba, bai! Hori da nire ametsa! Asko gustatuko litzaizake!

—Ederki! Orduan, bihar geldituko gara ilargira joateko. Ondo? Goizeko 9:00etan Madrilen. Bai?

—Oso ondo! —esan zuen Anjek, sinetsi ezinik—. Agur!

Eta, horrela, poz-pezik joan zen Anje etxera eta, segituan, gurasoei esan zien gertatutakoa. Gurasoek, ordea, ez zioten utzi:

—Baina oraindik 12 urte dituzu eta ezin zara joan!

—Ama, aita... baina... nire ametsa da, utzi mesedez!

Gurasoek elkarri begiratu zioten eta, Anjek zuen ilusioa ikusita, horrela esan zioten:

—Beno, baina bihar bakarrik, ados?

—Bai! Eskerrik asko! —esan zuen saltoka Anjek.

Hurrengo egunean Madrilen elkartu behar zuten Anjek, Amstrongek, Collinsek eta Aldrinek. Anjek gurasoekin joan behar zuen autoz eta gau hartan ez zuen ia lorik egin. Ilusio handia zuen eta, jaikitakoan, gosaldu gabe joan zen autora. Madrilera iritsi zirenean, Anjek Amstrongen lagunak ezagutu zituen eta denak hasieratik oso ondo konpondu ziren. Gurasoak agurtu zituen eta muxu bana eman zien, hau esanez:

—Lasai egon, berehalaxe etorriko naiz eta!

Handik ordu betera han abiatu ziren, hau esanez: 10... 9... 8... 7... 6... 5... 4... 3... 2... 1... ZERO!


—Bagoaz! Jupi, ze ondo! Kilimak egiten dizkit sabelean! —esan zuen Anjek.

Espazio-ontzian kartetan, dominoan, margotzen... joan ziren. Ia iristen ari zirenean, trajeak, botak, kaskoa... jantzi eta han joan ziren airean, kableak ondo lotu eta gero. Anje harrituta zegoen, izugarri ondo ari zen pasatzen espazioan eta ilargia esploratzen. Ilargitik Lurra ikusten zen, baina, ikasi berria zuen bezalaxe, dena urdina ikusten zen; horregatik deitzen diote planeta urdina, noski. Marte ere ikusi zuten, eta eguzkia...

Anje oso ondo ari zen pasatzen; baina, etxera itzultzeko ordua gerturatzen ari zela ikusita, hauxe galdetu zuen:

—Hurrena ere etorriko al gara?





*Leire Manterola*

—Jakina baietz! Etorriko gara; baina, ordurako, gu zaharrak egongo gara eta zuk beste batzuekin etorri beharko duzu. Ados?

—Ados!

Berriz ere espazio-ontzira sartu ziren, Anjek argazkiak eta argazkiak ateratzen zituen bitartean, izugarrizko gogoia baitzeukan gurasoei erakusteko.

Baina orduantxe...

—Anje! Esna al zaude?! —esan zuen Nagorek, nahita.

—Eeeeeeeeeeeee? —erantzun zuen Anjek, oraindik erdi lotan.

—Ea esna al zeunden, baina... lo zeunden. Ja, ja, ja! —eta korrika alde egin zuen.

—Amaaaaaaaaaaaa, aiaaaaaaaaaaaa! Nagorek esnatu egin nau eta amets paregabea ari nintzen egiten!

—Nagore, etorri hona oraintxe bertan! —esan zuen amak haserre—. Zer esan genuen lehengoan? Berriz ere zigortu egin behar al zaitugu?


—Ez esnatzeko Anje! —esan zuen aitak.

Bitartean, Anje Nagoreekin borrokan hasi zen, ez zuelako gehiago bere arreba agoantatzen eta gurasoek Nagore zigortu zuten: aurreko zigor bera jarri zioten; baina, aldi hartan, aste bat ez, hilabete bat!

Horrela bukatu zen eguna.

Alde batetik, Anje gustura zegoen arreba zigortu zutelako; baina, bestalde, haserre bere amets polit hura amets bat besterik ez zelako izan. Baina, behintzat, pozik joan zen ohera, ea gau hartan ere antzeko ametsik egiten zuen; nork daki, agian egunen batean egia bihurtuko da ametsa...

*Uxue Alberdi*



*Maria Manterola*

# Amona


Beti bere aulkian eserita,  
aulkia beti leihoari begira  
bere begi handi berdeak  
leihoari hegira  
bere senarrari itxoitzen.

*Alex Garzon*

# Kometa

Kometak hegan egiten duenean  
aingeruekin egiten du jolasean,  
euria egiten duenean,  
etxean dago goxo betean

*Alex Garzon*




*Josu Saez*

# Krisia

Ni gaur parkean nago,  
bokadillo ziztrin bat jaten.  
Nire laguna, alderantziz,  
bokadillo goxoa jaten,  
hamar euro balio duena.  
Krisia dago,  
jostailua nahi dut  
lagunak erakartzeko.  
Amak esaten dit  
bihotzak asko balio duela,  
bihotzak ez du krisirik,  
bihotza denei emanda,  
maitasun ugari.

*Haritz Miera*



*Nahia Agudo*

# Gezurrak ez du alde onik

Bazen behin Maite, 10 urteko neska oso berekoi eta alferra, eta joko elektronikoak asko gustatzen zitzaizkiona.

Argala eta ile marroi motxa zuen; begi marroiak, nahiko sudur luzea, aho txikia eta belarri txikiak ere bazituen.

Maitek ama, aita eta anaia txikiagokoak zituen. Maiteren amak Jone zuen izena eta oso emakume ederra zen. Maiteren aitak Xanti izena zuen eta lau enpresen jabea zen; horregatik ziren horren aberatsak Aberasturi familiakoak. Maiteren anaia, Josu, berriz, 7 urteko mutil argia zen; bere amaren antza zuen eta beti bere laborategian sartuta egoten zen, asmakizunak asmatu eta asmatu, ia geratu ere egin gabe.

Xantik, Maiteren aitak, bere seme-alabentzako onena nahi zuen eta, hortaz, bakoitzari nahi zuena ematen zien, ia dena. Adibidez: Josuk asmakizunak egitea gogoko zenez, laborategi bat eraiki zion aitak, bere asmakizunak bertan egin zitzaizkion.

Baina Maiterena ezberdina zen. Maitek denetik nahi zuen: bere Wii-a, bere Nintendo DSi-a, bere PSP 3-a, bere ordenagailua, bere argazki kamera, bere zaldia... dena berarentzako bakarrik. Baina, bere aitak zioenez, guzti hori bazeukaten eta aberatsak ziren, bai, baina ez zuten dirua alferrik gastatuko bazeukatena berriz erosteko. Maitek hori aipatzen zuen bakoitzean, aitaren erantzuna bera izaten zen:

—Maite, baina hori guztia guk badaukagu. Zergatik ez zara ados jartzen daukagunarekin? Beste batzuek ez dute ezta ogi apurrik ere...

Beti erantzun bera, beti berbera, eta Maite nazkatuta zegoen: dena ez omen zeukatena, zaldirik ez omen zeukaten eta berak zaldi bat nahi zuen z-a-l-d-i bat. Ez zuen etsiko zaldi bat eduki arte, ez horixe!

Baina, gainera, denetik zeukaten, bai, denetik: izugarritzako etxe handia, beren sukaldari propioa, bakoitzak bere gela bere komuna eta bere zerbitzaria.

Maiteren zerbitzariak Maria zuen izena eta beti Maiteren gela txukuntzen eta arropak jasotzen ari zen, dena Maiteren gusturako izan zedin.

Josuren zerbitzaria, berriz, Josuk berak eraiki zuen robota zen eta Maritxu izena jarri zion.

Behin, Maite, bere eskola “pribatuan” zegoela bere lagunekin, Itsaso hurbildu zitzaion, gelako beste neska aberatsenetakoa, Maitek gogoko ez zuena, eta hitz egiten hasi zen:

—Kaixo! Badakizue zer? Badakizue zer? Jakingo duzue, jada, bihar nire urtebetetzea



dela eta nire aitatzok zaldi bat oparituko dit! Nire aita onena da!

Eta Maite harriturik geratu zen, bere etsaiak berak biziki nahi zuen zerbait izatea... ezin zuen onartu! eta, pentsatu gabe, esan zuen:

—Ba, nik bi zaldi ditut: bat zuria da eta Xuri izena du eta bestea marroia da eta Zazpi izena du. Aitak oparitu zizkidan atzo gauean.

Bere lagun guztiak harriturik geratu ziren eta baita Itsaso ere. Denek nahi zituzten Maiteren bi zaldiak ikusi, baina Maitek ez zien utzi, *nekaturik* omen zeuden eta.

Horrelako gezur bat esan eta denak miresten zutela ikustean, gezurak esaten ohitu zen.

Egun bereko arratsaldean, Maite bere anaia Josuren zain zegoen eskolako atearen aldamenean.

Josu eskolatik atera bezain laster, biak batera etxerantz joan ziren Maiteren zerbitzari Mariarekin.

Etxera iristean, biak korrika jangelan sartu eta beren ogitartekoa jan zuten. Ondoren, etxeko lanak egitera joan ziren. Maitek laguntza pixka batekin egiten zituen etxeko lanak, irakasle partikular batekin, baina Josuk ez, ez zuen irakasle partikularrik behar, gelako azkarrena baitzen.

Etxeko lanak amaitzean, bakoitzak denbora librea zuen. Josuk, adibidez, laborategian jarduten zuen denbora libre guztia, eta Maitek, berriz, bere joko elektronikoekin. Izugarri pila gustatzen zitzaizkion eta gelditu gabe ibiltzen zen, gora eta behera, ezker eta eskuin...

Hurrengo egunean, larunbatean, Sarak, Maiteren lagunik onenak, Maiteren etxera deitu zuen:

—Kaixo! Sara naiz. Maiterekin hitz egin nahi dut.

—Kaixo, Sara! Maite ohean dago oraindik, baina esnatzen denean zuk deitu duzula esango diot.

—Mila esker, Maria! Agur.

—Agur.

Gerora, Maite esnatzean, Mariak Sarak deitu zuela esan zion.

Maitek berehala deitu zion Sarari:

—Kaixo, Sara! Maite naiz. Zer nahi duzu?

—Kaixo, Maite! Egun on! Ba, begira... lagun guztiok plazan geratu gara. Eta zu bakarrik geratzen zara. Etorri nahi al duzu?

Maitek ez zuen joan nahi, baina nola esango zuen ezetz?

Orduan gezur bat otu zitzaion:

—Gustura joango nintzateke, baina gaur goizean oporretara goaz eta munduari buelta emango diogu hegazkinez. Beraz, ezin dut. Sentitzen dut, Sara. Agur.

—Beno, orduan noiz ikusiko gara?

—Ba... datorren astean, beharbada. Agur

Ondoren, Maite gosaltzera joan zen. Bere aitak lanera joan beharra zuen, lau enpre- sen jabe izateak lan asko dakar eta.

Baina Maiteren amak ez zuen lanik egiten; beraz, ia egun osoa etxean igarotzen zuen.

Josuk gosaltzen amaitu zuenean, laborategira joan zen eta Maite eta Jone bakarrik geratu ziren jangelan. Maitek oraindik gosaria mahai gainean zuen, eta bere amak gal- detu zion:

—Maite, laztana, gaur goizean geratuko al zara lagunekin? Mariak eramango zaitu autoz nahi duzun lekura, edo nahiago duzu nirekin paseatzera etorri?

Eta Maitek ez zekien zer esan, ze Sarari esan zion oporretara zihoala, eta kalean ikus- ten bazuen konturatuko zen Maitek gezurra esan ziola, eta beste gezur bat otu zitzaion:

—Gustura joango nintzateke, baina ez naiz ondo sentitzen eta etxean geratuko naiz ondo iruditzen bazaizu.

Bere ama asko kezkatu zen eta medikuari deitu zion Maite bere gelara zihoan bitar- tean (joko elektronikoetan jolastera).

Medikua etxera iristean, Maitek eskaileretatik norbait igotzen ari zela entzun zuen eta, orduan, jokoak itzali eta ohean sartu zen.

Medikuak Maiteri tenperatura hartu zion:

—Mmm... 36,5° ez zait iruditzen gaixorik zaudenik. Oso ondo zaudela dirudi, aur- pegi ona duzu.

—Mediku jauna! Orduan, Maite gaixorik al dago?

—Ez, Jone anderea, Maite oso osasuntsu dago. Orain, barkatu, baina joan egin behar dut.

Eta medikua joan egin zen.

Medikua joatean, Maitek, buruko mina zuela esan zion bere amari eta bere amak berriro ere sinistu egin zion eta bakarrik utzi zuen bere ohean sartuta goxo-goxo.

Mariak esnea eztiarekin eta galleta batzuekin utzi zituen Maiteren mahaitxoaren gainean, Maite azkarrago senda zedin.

Maite, ordea, bere ama eta Maria gelatik joatean, berriro ere jokoak piztu eta jolasten hasi zen.

Josu, bitartean, bere laborategian zegoen, baina bere arreba nola zegoen ikustera joatea pentsatu zuen.

Josuk ez zuen Maiteren gelako atea jo, Maiteri enbarazu ez egiteagatik. Atea poliki-poliki ireki zuen, soinurik ez ateratzeko, eta orduan, ikusi zuen Maite jokoetan jolasten ari zela. Orduan konturatu zen ez zegoela gaixorik eta gezurretan ari zela.

Josuk beste smakizun bat egin aurretik, esperimentu bat egin behar zuen: Maite aztertu behar zuen ea zer egiten zuen, ea nola konponduko zuen gezur handi hura...

Maiteren aita Xanti etxera iristean, eta Maite gaixorik zegoela konturatzean, korrika joan zen haren gelara; baina, orduan ere, Maitek pausoak entzun zituen eta jokoak itzali eta ohean sartu baino lehen, esnea komunetik behera bota (komuna bere gelan baitzuen) eta ohera sartu zen ahalik eta azkarren.

Xanti gelan sartzean, eta Maite ondo zegoela ikustean, muxu bat eman eta ezer esan gabe gelatik irten zen.

Gerora, norbaitek Maiteren telefono mugikorrera, deitu zuen:

—Bai? —erantzun zuen Maitek:

—Kaixo, nire Maite laztana.

—Amona! Kaixo! Zer moduz zaudete zuek? Zer moduz dago aitona Ander?

—Oso ondo gaude, eta zuek? Zer moduz zaude?

—Ba... ni gaixorik nago, baina ez kezkatu! Laster sendatuko nahiz eta, gainera, literatur lehiaketa bat irabazi nuen lehengo astelehenean (lehiaketarena beste gezur bat zen).

—Badakizu zertarako deitu dudan? Begira, zure aitona eta nik zuen etxera joan nahi genuke gaur gauean afaltzera. Ondo iruditzen al zaizu?

—Oso ondo, amona Olatz! Segituan esango diot Mariari ama abisatzeko. Orain arte!

—Agur, gero arte. Ez ahaztu, e?

—Ez, amona! Oraintxe esango diot Mariari. Agur!

Mugikorra eseki bezain laster, Maitek Mariari deitzeko txirrina erabili zuen, aitona eta amona afaltzera zetozela esateko.

Gauean, aitona Anderrek, amona Olatzek, Xantik, Jonek, Josuk eta Maitek afaltzen amaitzean, Josuk berriro ere Maite aztertzeari ekin zion ezkutuan, inor konturatu ere egin gabe. Denak egongelan zeudela, bat-batean, amona Olatz, Maite eta atzetik Josu, hirurak beste egongela batean sartu ziren eta amonak Maiteri eskuetan zerbait jarri zion, poltsatxo bat. Maitek segituan ireki zuen eta belarritako pare bat zeuden barruan:

—Hau zure oparia da, lehiaketa hori irabazteagatik, aitonaren eta nire partetik.

—Eskerrik asko, amona!

Josu konturatu zen bere arreba berriro ere gezurretan ari zela eta makina bat egitea otu zitzaion, Maitek gezurrak esateari uzteko.

Hurrengo egunean, Josu makina egiten hasi zen:

—Pieza hau hemen, beste hau han, beste hura hemen azpian...

Maitek buruko mina zuela esaten zuen oraindik eta, hortaz, egun hori ere etxean geratuko zela.

Igandea zenez, Maiteren aitak lanean jai hartu zuen.

Jangelan, Josu bakarrik geratzen zen jaitsi gabe. Bat-batean, Maritxu, Josuren zerbitzaria, jangelan azaldu zen, eskuetan mezu bat zekarrela bere ama Jonerentzako:

—Kaixo, ama! Sentitzen dut, baina gaur ezingo dut gosaltzera jaitsi. Asmakizun batekin lanean ari naiz eta, mesedez, eman nire gosaria Maritxuri, berak ekarriko dit-eta gelaraino. Mila esker! Goian nago zerbait nahi baduzue. Gero arte.

Beraz, hirurek bakarrik gosaldu zuten.

Bat-batean, Maiteren ama hitz egiten hasi zen:

—Badakit agian arraroa izango dela, baina orain izeba Leire, osaba Imanol eta zure lehengusua Jon Errusiatik datoz gu bisitatzera eta hemen egongo dira bi-hiru aste.

—Errusiako izeba Leire! —esan du Maitek.

—Bai, zure izeba Leire.

—Iupi! Nire izebarik gustukoena da.

Gosaria amaitzean, Maite bere gelara joan zen, jokoetan jolastera, baina segituan jo zuten txirrina bere izeba-osabek.

Maitek, txirrina entzutean, Mariari deitu zion eta atea irekitzeko esan zion, ze bera gustura joango litzateke korrika eskaileretatik behera, baina bere gurasoek gaixorik zegoela uste zuten, beraz, hobe zuen Mariak joatea.

Leire, Imanol eta Jon etxera iristean, denak agurtu eta maletak beren gelan utzi zituz-

ten. Ondoren, Jon Maiterekin gelara igo zen jokoetan jolastera. Joko bat amaitzean, Maitek gezur bat kontatu zion Joni:

—Jon, badakizu zer?

—Zer?

—Atzo nire aitaxok yate bat erosi zidan niretzako bakarrik.

Eta Jonek erantzun zion:

—Benetan? Ze ondo, ezta? Zure aitaxok nahi duzuna erosten dizu beti. Atzo nire urtebetetzea zenez, aitaxok telebista bat eta mugikor taktil bat bakarrik oparitu zizkidan bost urte bete nituelako.

Maiteri horrek ez zion asko axola eta beste joko batean jolasten hasi ziren biak.

Gau hartan, Leire, Imanol, Jon, Josu, Maite, Jone eta Xantik batera afaldu zuten.

Hurrengo egunean, Maitek termometroa berogailuaren aldamenean jarri eta tenperatura 38°arte jarri zuen. Gero, Mariari deitu zion eta Mariak Joneri:

—Maite, sukarra duzu.

—Badakit ama, badakit.

—Ba gaur ere hemen geratuko zara, eta lasai egon. Orain bakarrik utziko zaitut.

—Ongi da, ama.

Arratsalde hartan, Josu etxera iritsi zenean, ogitartekoa jan, etxerako lanak egin eta makina egiten jarraitzeari ekin zion.

Maitek, ordea, ez zuen etxerako lanik, ze eskolakoek uste zuten oporretan zegoela, baina *gaixorik* zegoen etxean. Beno, hori ere ez, baina horrenbeste gezur esan ditu Maitek ze, jada ez daki nola azaldu hori gutzia. Beraz, bat-batean esan zuen:

—Ama! Ama!

Eta bere ama korrika joan zen Maiteren gelaraino:

—Zer duzu, Maite? Zer duzu?

—Ama, askoz hobeto sentitzen naiz eta eskolara joan nahi dut nire lagunak ikustera.

Maiteren ama ez zegoen ados. Jonek pentsatzen zuen Maitek deskantsatzen geratu beharko lukeela, baina Maitek ez zion jaramonik egin bere amak esandakoari aitak esandakoari baizik; aitak eskolara joaten utzi zion eta, nahiz eta bere lagunak ikustera bakarrik joan nahi zuen Maitek, aitak etxerako lanak ere hartzeko esan zion.

Maite autoz eraman zuten eskolako parkeraino eta gero autotik jaitsi eta korrika bere gelara joan zen.

Gelan bere irakaslea zegoen, Mikel, eta esan zion:

—Kaixo, Mikel! Oraintxe etorri naiz oporretatik eta gurasoek esan didate etxerako lanak hartzera etortzeko.

Mikelek segituan eman zizkion bi liburu irakurtzeko, hiru orri betetzeko eta baita diktaketa bat ere.

Maiteri gehiegi iruditu zitzaion; baina, ezer esan gabe, korrika autora joan zen bizkar-zorroa bete-beterik zuela. Baina ez hori bakarrik, autoan, bizkar-zorroa utzi eta parkera joan zen. Parkean, bere lehengusu Jon zegoen haren aita Imanolekin eta baita Sara, Ane, Ainhoa, Itsaso... ia bere lagun guztiak.

Besteek Maite ikustean, denak korrika joan ziren berarengana Itsaso izan ezik:

—Zer moduz pasa duzu oporretan? —galdetu zion Sarak:

—Ba... Ez gara munduko toki guztietara joan, baina bai Arabiara, Txinara, Amerikara... Ez digu denbora asko eman, baina gustura nago ze Arabian lagun bat egin nuen: Aisha izena zuen eta alfonbra hegalaria bat oparitu zidan. Etxean daukat eta gorria eta marroia da.

Bere lagun guztiek ezin zuten sinetsi Maitek alfonbra hegalaria bat eduki zezakeenik eta denek hegan egin nahi zuten haren alfonbraren gainean. Denek Itsasok izan ezik. Baina Maitek ez zien utzi ze esaten zuen *beldurturik* zegoela. Beti aitzakiak jartzen ari zen Maite eta gezur pila bat esaten.

Etxera iristean, etxerako lanak egin zituen, bere familiarekin afaldu zuen eta ohera joan zen. Hori guztia Josuri makina amaitzeko gutxi falta zitzaion bitartean.

Hurrengo egunean, Maitek eskolara joan behar izan zuen bere anaia Josurekin.

Eskolatik irtetean, arratsaldean, etxera iritsi, ogitartekoa jan, etxerako lanak egin eta Josu, beti bezala, laborategira joan zen eta Maite bere lehengusuarekin jokoetan jolastera.

Azkenean, Josuk lortu zuen makina bat eraikitzea, Maitek gezur gehiago esan ez zitzaizkan.

Makina kaxa bat zen, kaxa txuri bat.

Arratsalde hartan, Josuk Maiteren gelako atea jo eta sartu egin zen. Jokoak itzali eta Maiterekin hitz egiten hasi zen:

—Barkatu zure jokoak itzaltzea, baina joko horiek baino gauza garrantzitsuago bat esan behar dizut. Begira, aspalditik nabil zuretzako makina bat eraikitzen eta amaitu

dut. Zure jokoen antzeko joko bat da. Begira, ezer esan baino lehen, dena azalduko dizut: amona eta aitona etorri ziren egunean konturatu nintzen gezurrak esaten ohiturik zinela; baina, lasai, ez dut ezer esango, oraindik gutxiago gurasoei... baina hori nire makinan sartzen bazara; oso segurua da, lasai.

—Ongi da, baina lehendabizi azaldu zer egin behar dudan.

—Begira, lehendabizi, nire makinan sartu behar duzu. Kutxa erraldoi bat da. Barruan zaudela, itxaron nik barruko botoi bati eman arte. Nik esatean, bat-batean, kutxa barruko pantailak aldatu egingo dira eta gero, zuk bizitza normala egin. Bizitza birtual bat da; baina, gezur bat esaten duzun bakoitzean, gauza txar bat gertatuko da, beraz, kontuz ibili.

—Baina nik zer egin behar dut? —galdetu zuen Maitek, pixka bat beldurturik.

—Zuk, orain, begiak itxi eta, nik esatean, berriro ireki. Ondoren, bizitza birtuala egingo duzu zure gurasoekin, lagunekin, nirekin... baina ez da benetan izango. A! eta kontuz gezurrekin! Orain, itxi begiak.

Josuk botoi berdeari eman zion eta, bat-batean, kutxa barruko pantailak aldatu egin ziren.

—Maite, begiak ireki ditzakezu. Orain, egin zure betiko bizitza, joan eskolara, arratsaldean etxera etorri, ogitartekoa jan... egunero egiten duzuna.

Maite, kutxa barruan, eskolara joan zen eta nahi gabe beste gezur bat kontatu zion Sarari:

—Sara! Badakizu zer, atzo gauean, nire aitatzok MP5-a oparitu zidan, oporretan oso ondo portatu nintzelako.

Eta bat-batean, kutxa barruko pantaila beltza jarri zen, eta ahots batek esan zuen:

—Gezur bat esan duzu! Beraz, partida hau galdu duzula esan nahi du eta, ordaintan, 10 urte gehituko dizkizut. Horrez gain, Wii-a ere kenduko dizut eta zure ezagun bat desagerraraziko dut. Orain, bigarren partidara zoaz.

Eta Maitek galdetu zuen:

—Josu! Josu! Zer da 10 urte gehituko dizkidala eta Wii-a kenduko didala eta ezagunarena? Zer? E? Josu!

—Maite, esan dizut gezurrarekin kontuz ibiltzeko, gezurra esatearen ordaina da hori. Bigarren partidara eramango zaitut. Orain parkean egongo zara.

Eta hurrengo partida Maitek 30 urterekin egin zuen. Gezurraren ordaina bezala, noski, eta ezin zuen Wii-an jolastu, hori ere ordaina baitzen. Eta zein ote zen desagertu zen ezagun hori?

Maite parkean zegoela, konturatu zen bere lagunek ere 30 urte zituztela. Denak parkean zeuden, Sara eta Itsaso izan ezik. Maitek pentsatzen zuen desagertutako ezaguna Itsaso zela; baina, bat-batean, parkearen atzetik irten zen. Maite korrika joan zen Anerengana. Oso zaila zen bera ezagutzen, baina azkenean ezagutu zuen eta galdetu zion:

—Kaixo, Ane! Ezagutzen al nauzu? Maite naiz.

—Kaixo, Maite! Aspaldiko! Zer moduz?

—Ondo. Begira, galdera bat egin nahi dizut: ikusi al duzu Sara?

—Ze Sara? Nik inoiz ez dut Sararik ezagutu, zer diozu?

Maite orduan konturatu zen desagertutako ezaguna Sara zela eta gezurrik ez esaten saiatu zen; baina berriro ere, nahi gabe beste gezur bat esan zuen:

—E... ez, ez, txantxa bat bakarrik zen. Nik ere ez dut inolako Sararik ezagutzen.

Eta berriro kutxa barruko pantaila beltza jarri zen letra gorri batzuekin:

—Orain ere beste gezur bat esan duzu eta oraingo gezurra oso larria da; beraz, 20 urte gehituko dizkizut. 50 urterekin joko elektronikorik behar ez duzunez, joko guzti-guztiak kenduko dizkizut eta oraingoan pertsona bat baino gehiago desagerraraziko ditut, hiru pertsona.

Maite negarrez hasi zen eta Josuri kutxatik atera nahi zuela esan zion:

—Josu! Mesedez, atera nazazu kutxa beldurgarri honetatik!

—Barkatu, Maite; baina hirugarren partidara eramango zaitut. Orain 50 urte edukiko dituzu; beraz, etxean izango da hurrengo partida.

Maite segituan azaldu zen bere etxean eta, korrika, gertatzen ari zena bere gurasoei esatera zihoan.

Bere gurasoen gelan begiratu zuen, jangelan, baita egongelan eta lorategian ere; baina ezer ez, ez zegoen inor. Beno, bai, Maritxu zegoen, Josuren robota, eta Maitek galdetu zion:


—Kaixo, Maritxu! Galdera bat egin behar dizut. Ba al dakizu non dauden nire gurasoak?

Maritxu negarrez hasi zen eta esan zuen:

—Baina, Maite! Zuek umezurtzak zarete!

Maite negarrez hasi zen, ze nahiz eta 50 urte izan, gurasoak makina batek desagertzea oso gogorra zen:





*Mikel Amilibia*

—Eta Maria? Non dago Maria?

—Ze Maria? Nor da Maria? —galdetu zuen Maritxuk.

Maite konturatu zen desagertutako hiru ezagunak bere gurasoak eta Maria zirela.


Maitek 50 urte zituen eta nahiko zaharra zen jada; beraz, joko horrekin aspertzen hasia zen eta bere lagunengana joan zen.

Maitek, nahi gabe, gezur gehiago esan zituen eta, 80 urte zituela, hauxe gertatu zitzaion: bere ezagun guztiak desagerturik zeudela konturatu zen. Ezer gabe geratzen ari zen eta okerrena da zaharturik zegoela. Joko harekin konturatu zen, gezurraren erruz, bakarrik eta ezer gabe geratzen ari zela, zahartzen zihoan bitartean, eta Josuri dena ulertu zuela esan zion.

Maite kutxatik irtetea, bere ezagun guztiengana joan zen eta denei barkamena eskatu zien. Inork ez zekien zergatik; baina, azkenean, denak pozik amaitu zuten. Eta Maite konturatu zen ez zuela zaldirik behar pozik bizitzeko.

Ala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan.

*Leire Izagirre*



*Andoni Campos*

# Maite itsuaren abenturak

Baziren behin bi anai-arreba, bata mutila zen, 12 urte zituen eta bietatik zaharrena zen. Neska, berriz, txikia zen, 2 urte zituen. Baserrian bizi ziren bere gurasoekin eta aitona-amonekin. Baserrian animalia asko zituzten: behiak, astoa, txerria, oiloak, ardiak eta txakurra. Oso gustura ibiltzen ziren animaliei jaten ematen, ukuilutik ateratzen eta sartzen, jolasten...

Neska txikia itsua zen, bere izena Maite zen. Itsua jaio zenez, ez zuen arazorik, baserria ongi ezagutzen baitzuen eta ez zen galtzen, oso ondo moldatzen zen. Txakurra zen bere lagunik onena, beti bere ondoan ibiltzen zen eta, arrisku baten aurrean, txakurrak babesten zuen. Baina 3 urte bete zituen eta eskolara joan behar zuen. Lehenengo egunean aita eta amarekin joan zen eta denbora guztian negarrez egon zen, ez baitzuen ikusten eta beste pertsonen ahotsarekin beldurtu egin zen. Gela ez zuenez ezagutzen, nahi gabe mahaia jo zuen eta izugarritzko kolpea hartu zuen buruon. Etxera joan zenean, amonak galdetu zion:


—Zer moduz eskolan?

—Oso gaizki! Gehiago ez noa, amona! —esan zion neska txikiok. Bere txakurra ondoan zegoen eta neskok txakurrari goxo-goxo heldu zion.

Hurrengo egunean esnatu zenean, gurasoek esan zioten eskolara joan behar zuela. Ez zuen joan nahi eta sekulako kasketa harrapatu zuen. Gurasoei pena handia eman zien, baina eskola derrigorrezkoa da eta joan behar zuen. Eskolara iritsi zirenean, irakasleak besoetan hartu eta gelara eramane zuen. Oraindik negarrez jarraitzen zuen, baina gelako laguntxo batek eskua eman zion eta bere ondoan eseri zen. Biak jolastu ziren koltxoneton, panpinekin... Arratsaldean gurasoak bila etorri zirenean, neska txikia poz-pozik aurkitu zuten. Baserrira heldu zirenean, amonari kontatu zion eskolan egin-dako guztia, baita ere laguntxo bat egin zuela. Txakurrak entzun zionean, poz-pozik, buztana mugituz saltoka hasi zen. Biak zelai batera, behiak zeuden tokira, joan ziren jolastera.

Hurrengo egunean ez zuen negarrik egin. Eskolara heldu zirenean, bere laguntxoa zain zegoen ate ondoan. Eskutik heldu eta gelara sartu beharrean, eskola ondoko bide batetik joan ziren biak eta zuhaitz artean galdu ziren. Gurasoak arratsaldean bila joan zirenean, eskolan esan zieten ez zegoela han, ez zela eskolara etorri; laguntxoaren gurasoak ere galdezka zeuden eta irakasleek esan zieten haien semea ere ez zela eskolara etorri. Orduan, gurasoak eta irakasleak estutu egin ziren eta bila hasi ziren. Gaua iritsi zen eta ez ziren agertzen. Hurrengo egunean herri osoa atera zen umeen bila.

Ilundu zenean, Maiteren laguntxoa beldurtu egin zen eta, negarrez, amari eta aitari deika hasi zen, baina Maitek lasaitu zuen. Itsua zenez, berak beti den-dena ilun ikusten



*Aitor Elizalde*

zuen eta ez zuen argitasunik behar; entzumenarekin, usaimenarekin eta ukimenarekin oso ondo konpontzen zen eta Maiteri esker, azkenean, eskolan agertu ziren. Gaua zen eta oso nekatuta zeudenez, eskolan lo hartu zuten eta hurrengo goizean, irakasleak etorri zirenean, han ikusi zituzten Maite eta bere laguntxoak lo. Gurasoei deitu zieten eta berehala agertu ziren eskolan. A, zer poza gurasoena eta umeena! Maite bere gurasoekin autoan sartu eta etxera joan ziren. Baserrian aitona eta amona ate ondoan itxaroten zeuden. Maite ikusi zutenean, emozioz negarrez hasi ziren. Han agertu zen, buztana mugituz, txakurra ere, eta Maiteren gainera bota zen poz-pezik.


Handik aurrera, Maite gogoz joaten zen eskolara eta zoriontsu bizi izan zen.

*Nerea Perez-Oliden*

## Leihotik zurekin hitz egiten

Leihotik begiratzen dudanean eta ez zaudenean,  
zeruari begira bere izar usoa itxaroten bezala sentitzen naiz.  
Zu zara nire amodioa,  
zu zara nire bihotza martxan jartzen duen motorra,  
zurekin nagoenean, armiarma sare batean harrapatuta sentitzen naiz,  
baina zurekin nagoela, zoriontsu naiz.  
Zu, nire amodioa, nire bizitza,  
zu gabe ez nuke izango bizitzeko gogorik,  
ezta ezertarako irrikarik.  
Nire bizitza, zu gabe, zubi luze eta estu bat da,  
baina zubi hori bukatzerakoan, mundu polit eta eder bat dago,  
pezik, irrikaz eta gustura bizitzeko mundu bat.  
Ikusten zaitudanean, zubitik urrutiago sentitzen naiz eta  
mundu izugarri horretatik gertuago,  
zu zara nire barruan mundu magikoa biratzen duen torlojua,  
ni bizitzeko arrazoia.

*Aitor Herranz*



*Teresa Argibe*

# Aingura


Aingura  
karela  
txanela  
mariñela  
udazkeneko amildegian,  
ilargiaren babesean.

Orbela  
gaztaina  
goroldioa  
perretxikoak  
kresalaren atzaparretan  
izurdeen babesean.

Euskal Herri aldean  
Orio herrian  
nire bihotzean  
itsasoa udazkenean  
udazkena itsasoan.

*Unai Zubizarreta*





*Eider Arruti*

# Espero gabeko oporrak


Bazen beste batzuk bezalako familia bat, aita, ama eta bi seme-alabak osatua, Jon eta Ane. Gurasoak sagardotegi batean egiten zuten lana, batek sukaldean eta besteak, berriz, mahaitik mahaira janaria ematen eta sagardotegira etortzen zirenak agurtzen. Seme zaharrenak, Jonek, hamahiru urte zituen eta Anek, berriz, hamabi. Ane txikia zen, ez oso sendoa, baina oso azkarra, gelako azkarrena. Bere maisuak maila bat igotzeko proposamenetan ari ziren. Zaharrena, mutila, oso sendoa, handia eta gelako harroputzen zen. Ez zen oso ondo moldatzen ikasketetan; ia beti nota baxuak ateratzen zituen eta ez zuen arretarik jartzen gelan; beti maisuak bere gurasoekin hitz egin beharra zekukan oso gaizki ibiltzen baitzen ikastolan. Irakasleek Jonek oporraldi bat behar zuela esaten zuten eta bere gurasoek kasu egin zieten eta Hawaiiira bidaiatzea erabaki zuten. Aireporturako bidean animaliak ikusi zituzten eta Ane oso pozik zegoen bi gauzengatik, bat Hawaiiira zihoazelako eta bestea animaliak asko gustatzen zitzaizkiolako. Joni, berriz, oporraren ideia asko gustatu zitzaion, baina animaliak ez zitzaizkion gustatzen gauza batengatik bakarrik: berak animaliak jan eta lo bakarrik egiten zutela uste zuelako, beraiek bezala ikastolara joan, lana egin edo etxeko lanetan lagundu beharrean. Aireportura iristean, Jon asper-asper eginda zegoen jadanik, eta Ane ere bide berean zihoan. Ez aspertzeko, bi anai-arrebak hegazkinak ikustera joan ziren beren gurasoak bidaiako lan guztiak egiten ari ziren bitartean eta ordu erdi pasa eta gero aireratu ziren.

Uhartera iritsi zirenean, liluratuta geratu ziren laurak: etxeak, hondartzak... dena ikusgarria zen. Taxi batean beren hoteleraino joan ziren. Gauzak bere lekuan utzi eta piszinara joan ziren, uretan denbora pixka bat pasatzera. Laurak aldera piszinatik atera eta hondartzara joan ziren Jon eta Ane. Neska hondarrezko gazteluak egiten ari zela, Jon arroketatik eskalatzen ari zen karramarroak egiten zuten moduan eta, bat-batean, dena goroldioz betetako zulo batera erori zen eta, izuz, marru egiten hasi zen eta bere arrebak etorri zitzaion bila. Zuloa oso luzea zen eta, beren ustez, kobazulo bat ere izan zitekeen. Oso iluna zen, ur tantak erortzen ari ziren sabaitik eta hotz egiten zuen barruan.

Barrura sartu ziren jakin-minez eta egiazko koba bat zela konturatu ziren, oso-oso luzea zen-eta, 200 metrokoa gutxi gora behera. Zenbat eta barrurago sartu, orduan eta ilunago zegoen; baina, badaezpada ere, Jonek eraman zuen linternarekin argi egin zuten eta aurrera joan ziren. Barrualdera zihoazela, hots arraro batzuk entzuten ari ziren. Jende multzo bat hitz egiten ari zela ematen zuen. Bat-batean, gizon bat pasa zen lastargi batekin, baina azkar ezkutatu ziren estalagmita baten atzean eta ez zen konturatu. Aurrerago joanda, bi gizon ikusi zituzten lurra zulatzen eta hau esaten zuten:

—Egunen batean bukatu beharko dugu hilabeteak daramatzagun kontu honekin!

—Neuk ere gogoia badaukat dirua hartu, etxe berri bat erosi eta lasai-lasai bizitzeko.



*Jaione Illarramendi*

—Eta, gainera, taldeburuak ez du lanik egiten, gu lanez gainezka gauden bitartean!

Baina taldeburua etorri zenean esan zuen:

—Zuek isildu zaitezte eta jarraitu zuen lanarekin, bestela altxorraren laurdena ere ez dizuet emango!

Bi umeak zerbait ezkutuan gordetzen ari zirela eta lanean oso serio ari zirela jakinda alde egin zuten.

Hurrengo egunean, jakin-minez, berriro koba barrura sartu ziren, gurasoei hondartzara zihoazela esanda. Zulo barruraino sartu ziren, baina ez zuten inor aurkitu. Arroka batzuen atzean ezkutatu ziren. Handik hamar bat minutura, hotsak entzuten hasi ziren eta bi anai-arrebek zekiten gizon horiek zetozeela. Egun hartan, ordea, bestelako gauza bat zekarren eskutan gizon batek eta altxor mapa bat zen. Gizonak mapa lurrean utzi eta zulatzen hasi ziren eta gaztetxoek mapan zer jartzen zuen ikusteko irrikaz, hartu eta korrika ihes egin zuten, baina zulatzaileek ikusi egin zituzten.

Gizon handiena korrika hasi zen beren atzetik eta, azkarrago zenez, harrapatu egin zuen mutila, baina neskak maparekin ihes egin zuen eta etxera joan zen dena gurasoei kontatzera. Gurasoak sinetsi ezinik geratu ziren, baina gauza bat egin zuten, mapa fotokopiatu eta kobazulora joan. Tratua egin zuten zulatzaileekin: beraiek mapa ematea eta gizonek mutila.

Baina gaizkile haiek ez zuten horrela egin: mutila libre utzi beharrean, mapa hartu eta korrika alde egin zuten. Gurasoak saiatu ziren beren atzetik joaten, baina galdu egin zituzten.

Egun osoa beren bila ibili ziren gurasoak eta baita polizia ere, deitu egin zioten-eta. Bat-batean, Anek gizonetako baten bota ikusi zuen etxola baten aurrean eta beren ezkutalekua hori bera izango zela pentsatu zuten. Polizia aurretik zihoala, barrura sartu ziren eta dena goroldioz, lokatz eta armiarma sarez josita zegoen eta pertsona bat bakar-rra ikusten zen: nahiko txikia zen eta denek zekiten zein zen. Jon askatu zuten; baina, beste inor ez zegoenez, poliziek galdera batzuk egin zizkioten:

—Ondo al zaude? Nora joan dira bahitzaileak?

—Ezin ditut galdera guztiak batera erantzun. Esan banaka mesedez! —esan zuen Jonek.


—Ondo al zaude?

—Bai, oso ondo, baina usain txarra dago hemen.

—Ondo da, goazen kanpora. Nora joan dira bahitzaileak?

—Betiko lekura, zulora.

Familiak poliziei kobazuloko kontu guztia kontatu zien eta autoetan hondartzarai-



*Maialen Rodriguez*

no joan ziren. Zulo barrura sartu eta bi polizia tirokatzen hasi ziren eta bahitzaileak eskuak gora zituztela irten ziren kobazulotik, etsita, eta poliziek eraman egin zituzten.

Familia zoriontsuak mapa zuenez, koba barrura sartu ziren eta zulatzen eman zuten arratsalde osoa, baina ez zuten ezer bilatzen ezta txanpon ale bat ere. Baina, azkeneko momentuan, Jon eta Ane zulatzen ari ziren lekuan, zerbait gogorra jo zuten palarekin. Altxorra zen.

Altxor guzti hori beren etxera bueltan ezin zuten eraman, laurdena hartu, beste laurdena poliziei eman, merezi zuten eta, eta geratzen zen erdia herriari eman zioten, oso jator portatu baitziren berekin. Eta, geroztik, urtero-urtero joaten ziren oporretan Hawaii uharte polit horretara, eta biztanle guztiek oso harrera ona egiten zieten.

*Andoni Garate*

## **Iñigok eta nik argitutako misterioa**

Iñigori eta niri gertatutako istorio hau 2001eko urtarrilaren 23an gertatu zitzaigun. Larunbata zen eta, beraz, ez geneukan ikastolara joan beharrik. Egun ederra zen. Zerua urdin-urdin zegoen eta, tarteka, laino batzuk ageri ziren. Uda izan balitz, hondartzara edo kaira joango ginen; baina, negua zenez, ezin joan.

Iñigo nire anaia da. 12 urte ditu eta oso bihurria da. Egunero bihurrikeriaren bat egiten du eta inoiz ez dit bakean uzten, baina asko maite dut, nahiz eta askotan asko ernegatu eta biok borrokan ibili. Ez da oso altua, argala da, haizeak eramango duela dirudi; azalez, elurra bezain zuria da; begiak, itsasoa bezain urdinak ditu; eta ile hori eta motza du. Alaia eta azkarra da eta beti laguntzeko prest dago.

Nik 15 urte ditut. Fisikoki, ez dut anaiaren antzik eta hori oso argi dago, nahiz eta izaeraz berdin-berdinak izan eta gustu berdinak eduki. Altua naiz, gutxi gorabehera 1,80m neurtzen dut, azal kolorea iluna dut, eguzkiaren eraginez asko ilundua daukadako, begiak marroiak eta distiratsuak ditut eta ilea, marroia eta oso luzea, baina eguzkiaren ondorioz, horitu egiten zait. Lehen, betaurrekoak erabiltzen nituen, baina urte bat edo bi badira lentillak erabiltzen ditudala. Esaten dutenez, alaia eta azkarra naiz, nire anaia bezala. Baina nire ustez, batzuetan oso burugogorra naiz eta, egia esanda, gehiegi hitz egiten dut. Biok gustu berdinak ditugu: irakurtzea, marraztea, kirola egitea... Irakurtzen hasten denean, anaia nire berdina da, gogo handiz hasten gara, eta ez dugula sekula bukatuko dirudi. Niri, gehienbat, udan lagunekin hondartzara joatea gus-tatzen zait, baina batzuetan kaira joaten gara. Uretan ibiltzea oso gogokoa dugu eta bertan ez dugu banderari begira egon beharrik. Besteei ere, niri bezala, uretan jolastea asko

gustatzen zaie. Kaian, goitik salto egiten dugu, beti ere inoren gainera salto ez egiteko behera begiratuta. Oso ondo pasatzen dugu guztiok uretan. Baina, bereziki, nire anaiak eta nik detektibe lanak egitea dugu gogoko, eta ez zaigu batere gustatzen etxean gertzea, gehiegi aspertzen baikara. Edozein aitzakia izaten da ona kalera irteteko: ogia erostera, lagunekin jolastera, erosketak egitera...

Orion bizi gara guraso eta amonarekin. Badugu beste neba zaharrago bat, baina hura Frantzian dago ikasten. Nire gurasoak Nafarroan jaioak dira, baita ni eta nire neba zaharrena. Berak Jokin izena du. 20 urte ditu, altua da, ile horia du eta begi urdinak ditu. Izaeraz, berriz, alaia, zintzoa eta azkarra da. Iñigo zaharragoa izanda edo Jokin gazteagoa, guztiak esango lukete bikiak direla. Orain dela urte batzuk, Iñigo jaio aurretik, hona etorri ginen bizitzera. Nik Nafarroako lagunak faltan botatzen ditut, baita hango familiakoak ere, baina Gabonetan hemen elkartzen gara. Udan, Lodosara joaten gara, familiakoei eta lagunei bisita egitera, baina hilabete erdia, normalean ekainaren bukarrera arte han egoten gara; eta gero hona etortzen gara berriz. Lodosa baino nahiago dut Orio, oso herri polita baita. Itsasoa, ibaia, mendiak... ditu. Han, udan bereziki, bero handia egiten du, itozteko modukoa, eta nik beroa ez dudanez hain gustuko, hona etortzeko gogo handia izaten dut. Hemen, lagun asko ditut: Maria, Beñat, Laida, Iñaki...; baita Nafarroan ere. Oso lagun onak dira eta beti laguntzeko prest daude. Jatorrak eta alaiak dira. Laidak, ilea limoia baino horiagoa du eta begiak marroiak, nik bezala; eta Iñaki, etxe orratza bezain altua da, jator-jatorra eta bihurria. Ilea beltza du eta begiak ere ilunak. Baina nire lagun minena Maria da.

Maria hona etorri nintzenean ezagutu nuen lehenengoa izan zen eta asko lagundu zidan. Mariak begi marroiak ditu eta ile hori-horia, Beñatek bezala. Bera nire mutila da, baita Mariaren bikia ere. Beñat oso jatorra eta ederra da. Berak ere asko lagundu zidan, eta segituan, lagun minak egin ginen hirurok. Beren aita idazlea da eta liburu asko idatziak ditu. Beren amak, berriz, ordenagailuak konpontzen egiten du lan eta denda txiki bat du, baina ez Orion, Tolosan baizik.

Egun batean etxean sartuta geunden Iñigo eta ni. Gure lagunak etxean zeuden eta ez zeukaten irteteko asmorik. Mariari deitu nion kalera irten behar zuen galdezka, baina ez berak eta ez Beñatek ez zeukaten irteteko asmorik, gurasoei laguntzen geratu behar baitzuten.

Telebistan film zirraragarri bat zegoen. Gerrari buruz zen eta, nahiz eta pena eman, oso polita zen. Diamante batzuei buruz zen eta protagonista hiltzean, pena handia ematen zuen, baina bukatutakoan, albisteak zeuden. Niri ez zaizkit batere gustatzen, ezta Iñigori ere, baina telebistan beste ezer ez zegoenez, hura ikustea erabaki genuen. Albisteetan lapurreta bat egon zela zioen:

*Orioko etxe batean, lapurreta bat egon da. Kartzelatik ihes egin berri duten bi lapurrek egin dute. Ikusten badituzue, mesedez deitu ezazue udaltzaingora eta hauek saiatuko dira harrapatzen. Bietako bat altua da, ile marroia eta motza du eta beltzez jantzita zihoan. Bestea, ordea, baxua da, ile marroi motza du eta galtza bakeroekin eta kamiseta zuriz jantzita zegoen. Orain*

*jarriko dizkizuegu beren argazkiak eta hemen behean azaltzen den telefonora deitu, ikusten badituzue.*

Orion lapurreta bat egon zen. Hura ezustea, eta gainera, gure ondoko auzoan gertatu zen. Iñigori, aurpegia aldatu zitzaion. Niri ere bai, zerbait egiteko asmoa etorri baitzitzaigun bioi: kasua argitzekoa.

—Ane, joango al gara kasua argitzera?

—Iñigo, ez dakit ba, amak errieta egingo digula iruditzen zait.

—Ez esan eta kito.

—Baina kalera goazela jakinarazi beharko diogu ba? —esan nion.

—Idea bat dut. Amari egia esan orde, esan diezaiokegu lagunengana goazela, eta horrela, ez digu ezer esango, ezta galaraziko era.

Beraz, gurasoei esan genien lagunengana gindoazela, egia esanez gero ez bailigukete utziko, eta kasua argitzera joan ginen. Etxe hura kanpotik miatzen ari ginela, lorategian oinatz batzuk zeudela ohartu ginen, ziur aski lapurrenak, baina etxeko jabeenak izan zitezkeela esan zuen Iñigok. Ni oso burugogorra naizenez, etxe guztia kanpotik goitik behera arakatzen hasi nintzen eta ur-hodietan hatz marka batzuk ere bazeudela ohartu nintzen, baita oinatzak hodiaren ondoan. Gainera, oinatz horiek etxea eta kalea banatzen dituen hesiraino zihoazen eta gainera, gero aldendu egiten ziren. Beraz, lapurrak hodieta igo ziren etxean sartzeko, eta jaitsitakoan, kalera joan ziren. Orduan, nahiago izan genuen kaleko bide guztiak ere belarrezkoak izatea errazago aurkitzeko. Baina ez direnez belarrezkoak, bagenekien lapurrak ez genituela sekula aurkituko eta, horregatik, etsita, berriz ere etxera abiatu ginen.

Baina, hura ezustea Beñaten ama oihuka entzun genuenean! Bere poltsa lapurtu zutela esan zigun, eta urrutian, bi gizon haiek ikusi genituen beltzez jantzita. Gizonak, hasiera batean behintzat, albisteetan esan zuten bezalakoak ziruditen, eta horregatik, haien atzetik joatea erabaki genuen. Korrika hasi ginen gizonen atzetik, haiek harrapatzeko asmotan; baina, azkenean, etxe batean sartu ziren. Etxe hura beltza baino beltzagoa zen, oso iluna; beraz, ez zen ia ezer ikusten, baina plan bat egiten ari zirela ohartu ginen, oso altu hitz egiten baitzuten:

—Etxe horretan ez zegoen esaten zuten adina aberastasun! —esan zuen gizonetako batek.

—Ez, arrazoi duzu, baina nik emakume zahar horri lapurtu diodan poltsan...

—Nola? Andre horri poltsa lapurtu al diozu ba? —moztu zion gizon altuenak, nahiko harriturik.

—Bai, ez al zara ohartu, ba? Disimulu handiz lapurtu ote dut ba? —erantzun zuen, baina txantxetan.



—Horregatik egin al du oihu? —galdetu zuen besteak.

—Noski, zergatik uste zenuen, ba, bestela? Uste nuena baino memeloagoa zara!

—Aizu! Zer nahi duzu, muturreko bat ala? —galdetu zion eskua altxatuz.

—Ero alaena! Ez al zara ohartzen planoak bota dituzula?

—Jaso itzazu, ba!

—Ezin dut, ez baitut ikusten iluntasun honetan. Esan nizun lanpara bat erosi behar genuela hemen jartzeko! —gogorarazi zion oihuka gizon batek besteari.

—Arrazoi duzu. Baina, hala ere, ez dut uste honengatik borrokan hasi behar genuenik.

—Beno, berdin dio. Goazen etxe honetara —eta planoaren bidez esan ziola uste dut, etxea oso iluna baitzen eta ez baitzen ikusten egiten zutena.

Gizonak etxetik irten zirenean, albisteetan esan zuten lapurrak zirela ohartu ginen. Argazkietan azaltzen ziren berdin-berdinak ziren. Etxe barrenera sartutakoan, Iñigok bere linterna piztu zuen, ez baitzen ezer ikusten, eta lehen lapurrak zeuden lekura joan ginen. Iñigok, estropezu egin zuen lurrian zegoen makil batekin, eta mahai azpian plano batzuk zeudela ohartu zen, eta ondoan, paper batean, umeek egiten dituzten antzeko zirriborro bat zegoen.

—Ane, begira zer aurkitu dudan! —esan zidan, oihuka. Eta altxatzen lagundu nion eskuan zeramatzan planoak erakutsiz eta linternarekin argizatuz.

—Hori ez al da gure etxea? Zergatik ote dago plano honetan gure auzoa biribilduta?

—Ez dute ba etxe hauetan lapurtu nahiko! —esan nuen, baina gero damutu egin nintzen.

—Ane! Zer galdera da hori! Lapurrak dira eta plano batean biribilduta dute. Ez nuen uste horren buru gutxi zenuenik, harriturik utzi nauzu! —baieztatu zuen Iñigok.

—Arrazoi duzu.

—Ane! —deitu zidan.

—Zer behar duzu? —erantzun nion nik.

—Ekarri al duzu mugikorra?

—Noski!

—Deitu udaltzainei —esan zidan nahiko beldurtuta—. Baina ez dugu beren zenbakia idatzi! Nola deituko diegu orain?

—Lasai, Iñigo. Nik aspalditik dut mugikorrean beren zenbakia. Gauza bera egin behar zenuke larrialdi bat gertatuko balitzaizu. Lagundu kanpora ordea, hemen barruan ez baitago koberturarik.

Kanpora irtendakoan, udaltzainei deitu nien azkar etortzeko esanez, uste genuela bi lapurrek gure auzoan lapurtu nahi zutela eta gainera, gure lagun baten amari poltsa lapurtu ziotela eta baita etxe batean ere. Handik bost minutura edo, udaltzainak agertu ziren.

—Zer gertatzen den esan diguzue, baina ekarri planoak badaezpada —esan ziguten larriturik.

—Hemen ditut —oihukatu zuen Iñigok.

—Ederki!

—Beno —esan zuen beste udaltzainak—. Joango gara?

—Bai, azkar joan behar dugu harrapatu nahi baditugu.

Udaltzainak auzoko etxe guztien atarietan jarri ziren, ez baikenekien nora joango ziren zehazki. Iñigo eta ni, udaltzain batekin joan ginen Beñat eta Mariaren etxe atarira. Handik hamar minutura-edo lapurrak azaldu ziren oso pozik, jada gu joan baino lehenago, beste auzo bateko etxean lapurtu baitzuten.

—Hara, hara! —esan zuen udaltzainak—. Begira nor ditugun hemen!

—Aaaaaaaa! —egin zuten oihi bi lapurrek.

—Ezuste handia ezta? —esan zuen Iñigok, berak jartzen duen bihurri aurpegiarekin.

—Ez, bai zera —esan zuen lapurrak. Eta besteak erantzun:

—Zer uste duzu, bagenekiela hemen egongo zela udaltzain kaxkar bat guri harrapatzeko asmotan?

Udaltzainak, hori entzundakoan, walki-talkia hartu zuen eta besteei etortzeko esan zieten. Beste guztiak etorri eta esan zuen udaltzainak:

—Zer, orain zer diozu? Hauek guztiak ere udaltzain kaxkarrak al dira?

—Beno... —hasi zen bietako bat—. Batzuk badira kaxkarrak baina besteak...

—Handikoteak, esan ezazu lasai —esan zuen beste lapurrak.

—Akabatuta gaude!

—Ez, lasai, akabatuta ez, baina kartzelan sartuko zaituztegu egia da —esan zien udaltzain batek.

Hori entzunda, Iñigo, udaltzainak eta ni barrez lehertu beharrean hasi ginen, txiste bat balitz bezala. Baina udaltzainen autoen sirenaren soinuaren ondorioz, Beñat zala-partaka jaitsi zen bere etxetik, baita Maria ere.

—Ane, zer egiten duzu hemen? —galdetu zidan Beñatek.

—Begira, oso istorio luzea da —esan nion.

—Berdin dio, Ane, kontaiguzu —erregutu zuen Mariak.

—Beste egun batean azalduko dizuet; bihar, adibidez. Baina orain ez, oso nekatuta bainago.

—Ane, mesedez.

—Aspertu egingo zarete, badakizue zenbat hitz egiten duen neskatxa honek —hasi zitzaidan, ni haserretu nahian, eta gainera, lortu zuen.

—Iñigo! —esan nion oso haserre.

—Ane, egia da, aitortu ezazu.

—Iñigo, hori badakit baina ez zaitez pasa! Eta ez hasi momentu honetan horrela, nahiko haserre nago eta gaur!

—Bale, nahi duzun bezala.

Hurrengo egunean, Maria eta Beñat gure etxera etorri ziren bazkaltzera. Oso ongi pasa genuen, baina telebista ikusten hasi ginenean, Iñigo eta ni agertzen ginela ohartu ginen.

—Ane eta Iñigo! —deitu zigun gure amak aho zabalik zegoela.

—Ama, begira, azal dezakegu —esan zuen Iñigok.

—Noiz esango diguzue zer gertatu zitzaizuen? —esan zuen Beñatek, baina guk ez genion entzun.

—Bai, azaldu behar didazue zergatik atzo esan zenidaten lagunengana joan behar zenutela eta ordurako...

—Kasua argitzera joan ginen, ezta? —esan nuen nik.

—Ez, jendeari laguntzera joan zinetela, Beñat eta Mariaren amari eta bi lapur horiek harrapatzera joan zineten. Nahiz eta astebete zigortuta egongo zareten, oso gustura nago zuekin.

—Ane, ulertzen duzu hau? —galdetu zidan nik entzuteko moduan bakarrik Iñigok.

—Egia esan, ez dut ulertzen. Errieta egin beharrean, ez dut ulertzen zergatik dagoen pozik gurekin.

—Ama hauek... ez ditut sekula ulertuko! —esan nuen.

—Ane, noiz azalduko diguzu zer gertatu zitzaizuen! —oihukatu zuten Maria eta Beñatek aho batez.

—Niri azalpenak ematen bukatutakoan —argitu zuen amak.

Beraz, azalpenak bukatutakoan, Beñat eta Mariari istorio guzti-guztia kontatu genien. Hasieran, ez zekiten egia esaten ari ginen edo gezurretan ari ginen, baina, bukaeran, sinetsi ziguten.

—Pelikuletako abentura bat dirudi! —esan zuen Beñatek.


—Bai, egia da —erantzun Mariak.

—Badakit, baina benetan, hori gertatu zitzaigun —esan zien Iñigok.

—Bai, bai, sinisten dizuegu.

Orain, Laida, Iñaki, Maria, Beñat eta nik 24 urte ditugu. Mariak nire lagunik onena izaten jarraitzen du, eta Beñatek nire mutila izaten ere bai. Nire anaia zaharrenak, Jokinek, 29 urte ditu eta jada, Orion bizi da. Bera irakaslea da Tolosako ikastola batean. Nire anaia Iñigok, berriz, 21 urte ditu. Gertatu zitzaigun abenturarekin gogoratzen garen bakoitzean, barrez hasten gara. Bi lapurrak oraindik ere kartzelan daude, eta diotenez, ez dituzte askatuko. Biak zahar-zaharrak dira, baina hala ere lapurrak izaten jarraitzen dute.

*Maialen Rodriguez*



*Alazne Arruti*

# Mehatxuak

Egunero bezala, George Lawrence arratsaldeko seietan lantokitik irten eta bere BMW X6an bera bizi zen baserri txikira joan zen. Baserria New York hiritik 4 km-ra zegoen. George gizon handi eta mardula zen. New York-eko Samsung enpresaren jabea zen eta diru asko irabazten zuen, gehiegi. Gurasoek, hiltzerakoan, utzi zioten baserrian bizi zen anaiarekin, Charlie-rekin. Charlie gizon baxu, argal eta burusoila zen. Bera baserrian lanean ibiltzen zen egunero: animaliak zaintzen, baratzean lanean... Bi anaiak oso ondo konpontzen ziren, baina Charlie-k inbidia pixka bat zion anaiari, bera zelako familiako garrantzitsuena bere diruagatik. Charlie baztertuta sentitzen zen batzuetan.

George etxera itzuli zenean, galdetu zuen:

—Zer dago bazkaltzeko, Charlie?

—Porru patatak eta patata tortilla. Eta postrerako, nik eginiko jogurta.

—Oso ondo dago bazkaria zuk prestatzea, baina esan beharra dago ez zarela oso sukaldari ona. Hiriko jatetxerik onenera joan beharko genuke bazkaltzera, nire lagun Joe-n JOE'S jatetxera. Oso garestia da, baina badaukagu nahiko diru plater onenak dastatzeko. Gainera, beherapenen bat egingo digu.

—Zer esker txarrekoa zaren! Ni hemen egunero lan eta lan goizeko 6:00etan jaikitzen, animaliei jaten ematen eta baratza bikain mantentzen, eta zu, etxera iristen zarenean, detaile txiki bat egiten dizut ahal dudan guztietan baratzetik lortutako barazki onenekin bazkaria prestatuta, eta horrelako mespretxua egiten didazu!

—Lasai, motel, proposamen bat besterik ez da nirea. Gainera, nahiko ondo prestatzen dituzu janariak —erantzun zion beldurtuta, anaiaren erreakzioa ikusi ondoren.

Horrelakoa zen egunerokoa Lawrence anaientzat: bat egunero etxetik lanera eta lanetik etxera eta bestea egun osoa baserrian lanean.

Baina otsaileko ostegun hura desberdina izan zen. Hotz handia egiten zuen. Egun iluna zen eta George seietan baserrira iritsi zen. Etxera sartu zenean, Charlie beldurturik hurbildu zitzaion eta, ahotsa dardarka zuela, esan zion:

—Irakurri hau, mesedez.

Georgek anaiak eman zion gutuna hartu eta irakurri zuen:

*Ez badituzue 10.000.000\$ hurrengo hilerako Manhattan kalean dagoen etxe zaharrean uzten, gauza oso txarrak gertatuko dira. Ez deitu poliziari bestela zuen familia eta zuen lagunak arriskuan egongo dira.*

George-k denbora baten ondoren erreakzionatu zuen eta esan zion anaiari:

—10.000.000\$! nondik aterako dugu hainbeste diru! Momentu honetan, nire enpresan bezero asko ari gara galtzen, prezio igoeragatik! EZ DUGU HAINBESTE DIRU! —oihukatu zuen.

—Lasai, George! Momentu hauetan ez da aztoratu behar. Poliziari deituko diogu.

—Ez, bestela gure lagunei eta familiakoei min egingo diete nazkagarri hauek! Baina nola jakingo dute nor diren gure ingurukoak... Beno, ez du axola horrek orain. Pentsatu egin behar dugu... Onena baserritik alde egitea izango da, badakite-eta non bizi garen.

—Ez! Hemen geratuko gara biok batera. Nik pentsatuko dut zer edo zer. Orain, goazen ohera, gaur pasatu dudan estresarekin asko nekatu naiz-eta.

Bi anaiek ez zuten lorik egin gau osoan. Zein izango zen mehatxatzailea eta zer egingo zieten pentsatzearekin bakarrik, egun osoko logale eta gosea joaten zitzaien. George bere laneko bulegoan beldurtuta egoten zen, norbait beti berari begira egoten zela iruditzen zitzaiolako. Lanetik itzuli zenean, esan zion anaiari:

—Charlie, horrela ezin dut bizi! Iruditzen zait edozein momentutan norbait etorriko dela nire atzetik eta min egingo didala.

—Bai. Ni ere egun osoan ez naiz baserritik irten, beldurragatik. Nire ustez, lasaitu egin beharko genuke, eta seguru nago laster beste mehatxu bat bidaliko digula mehatxatzaile nazkagarri horrek.

Egunak pasa ziren. Mehatxurik ez zitzaien iritsi anaiei. Lasaiago zeuden biak. Baina asteazken goizean, baserriko behi bat eta bi ardi hilda aurkitu zituen Charliek. Itxuraz, pertsonaren batek labana sartuz hil zituen animaliak eta haien gorpuen ondoan gutun bat zegoen. Horrela zion gutunak:

*Hauxe bera gertatuko zaiizue zuei, ez badiguzue eskatutako dirua ematen.*

Charlie guztiz jota geratu zen. Baita anaia ere, gertatu zena kontatu zionean. Ez zekiten zer egin; poliziari deitu eta familiakoen bizia arriskatu edo isilik jarraitu beldurturik.

Hurrengo egunean, George jaiki, jantzi, gosaldu eta baserritik irten zen. Autoan sartu zen, baina lantokira eraman beharreko txosten batzuk ahaztu zitzaizkion etxean. Beraz autotik irten eta handik sei metrora zegoela... DANBA! Eztanda handi bat sortu zen eta autoa sutan geratu zen. George eztandarekin lurrera erori eta hanka bat hautsi zuen. Charlie baserritik irten zen aztoratuta:

—O, ez, George! Lasai, orain deituko diot anbulantziari.

Medikuak segituan iritsi ziren New York-etik. George ospitalera eraman zuten.

Ostiral goizean, Charlie anaia bisitatzera joan zen erietxera:

—Kaixo, George! Zer moduz zaude? —galdetu zuen, zertxobait triste.

—Hobeto. Zelan baserria? Eztandaren ondorioz ez zen ezer erreko, ezta? Hain triste ikusten zaitut...

—Ez, ez da erre ezer, lasai. Egia esan, zertxobait nekatuta nago. Polizia pila bat dabil-tza baserri inguruan, niri galderak egiten...

—Orduan poliziak badaki mehatxuena! Agian, gure lagunak bila joango da hiltzai-lea! Ni saiatu da hiltzen. Eskerrak oso inozoa den eta ezin izan duen lehergailua ongi programatu, autotik irten naizenean lehertu baita.

—Lasai, ez diot poliziei mehatxatzailearena esan. Zure autoa gasolina botatzen ari zela konfigurazio akats bategatik eta zuk zigarroa pizteko pospoloa bota duzula gasoli-nara nahi gabe esan diet, eta horrela gertatu dela leherketa.

—Ongi egin duzu gezurra esaten. Beno, orain joan egin behar duzu baserria zain-terera. E! norentzat da daramazun ogitartekoa? Niretzat izango da, ezta? Ospitaleko jana oso txarra da eta gosea dut... —esan zuen George-k brometan.

Charlie-k barre txiki bat egin eta ospitaleko logelatik irten zen.

Gau hartan Charlie-k bere anaiari dei larri bat egin zion, baserrirantz joateko esa-nez. George-k ospitaletik irteteko baimena eskatu eta taxi batean baserrira joan zen. Taxitik muletekin irten eta, etxera sartzean, Charlie odoletan ikusi zuen:

—Baina zer gertatu da?

—Mehatxatzailea baserrian sartu da. Eskale zikin bat besterik ez zen! Horregatik nahi zuen dirua etxe abandonatu batean uztea, bertan bizi zelako! Ulertzen? Labanarekin sartu da, dirua emateko esanez. Ni oso beldurtuta nengoen. Orduan, sukaldean borrokan hasi gara eta berak ebakiak egin dizkit aurpegian eta besoetan. Beldurtuta nengoen, aitaren eskopeta hartu eta tiro egin diot! Ezin nuen beste ezer egin, oso ikaraturik nengoen...

—Non dago gorpua? —galdetu zuen George-k harrituta.


—Sukaldean —erantzun zion anaiak.

George sukaldera joan zen eta han zegoen gizon bizardun eta zikin baten gorpua, lurrean botata, tiro bat zeukala bularrean. Lurrera begiratu eta, gizonaren azpian, odol tanta ilunak zeuden. Beste aldean, berriz, odol tanta argiak eta biribil-biribilak zeuden. George-k harritu aurpegiarekin begiratu zion anaiari. Honek esan zion:

—E... ez al didazu sinesten? Hemen dut gizon horren labana.

Labana odolez zikinduta zegoen. George-k, ikusi zuenean, esan zuen:





*Maiden Manzanitas*

—Zu zara mehatxatzailea.

—Ze-zergatik diozu ho-hori?

—Labana hori zurea delako. Lehen ospitalera eraman duzu, ogitartekoarekin batera. Horrekin ondorioztatzen dut eskale gizajo hau etxera ekarri duzula, ogitartekoa erakutsiz. Hemen, tiro bat bota diozu lehenbizi eta, ondoren, zuk zeure buruari egin dizkiozu ebakiak. Hori odol tantengatik ikusten da: eskalearenak ilunagoak direlako eta zureak argiagoak. Bestalde, ez da borrokarik egon, zure odol tantak biribilak direlako, hau da, geldirik zeundela eginikoak. Borroka egon izan balitz, odol tantak luzeagoak izango ziren, mugimenduan egongo zinatekeelako. Baina zergatik egin duzu hau guztia?

—Zuk zergatik uste duzu? Nazka-nazka eginda nengoen egun guztia baserrian lan egiten egon beharraz, nire anaia ezer egin gabe diru pila bat irabazten ari zen bitartean! Orduan, mehatxua bidali nizun, dirua emango zenidala uste nuelako. Baina ez zen horrela izan! Animalia batzuk hil nituen, beldurra sartzeko; baina, hala ere, ez nuen dolar bakar bat ere ikusi! Beraz, zu hiltzen saiatu nintzen. Bai, zu hiltzen, lehergailuaren bitartez! Hilko bazina, zure herentzia niretzako izango zen, gurasoak hilda daudelako. Baina lehergailua gaizki programatu nuen! Horren ondorioz, poliziak galderak egitera etorri zitzaizkidan eta oso nekatuta nengoen historia guzti honekin. Beraz, errua beste norbaiti botatzea erabaki nuen, baina hau ere gaizki irten zait!


George aho zabalik geratu zen eta ez zekien zer esan. Bat-batean, Charlie negarrez hasi zen.

—Ez dut ezertarako balio. Eta oso gaizki sentitzen naiz. Barkatu...

George-k Charlie besarkatu zuen.

Hurrengo egunean, Charlie poliziarengana joan zen, egin zuena aitortzera. Hamar urteko kartzela-zigorra ezarri zioten. Handik aurrera, George baserriko lanak egiten ibili zen, bere lana utzita.

*Xabier Makazaga*



*Intza Unanue*

# Bizitzak abenturak dakarzki?

2016ko urriaren 21a da gaur. Nire urtebetetzea da. 20 urte bete ditut eta, ospatze-ko, familia guztia elkartu gara. Hogeita bost pertsona gaude, horietako zazpi haurrak dira. Heldu guztiak kafe bat hartzera joan dira eta ni haurrak zaintzen geratu naiz. Horien izenak: Xabat, Malen, Aitor, Maialen, Ainhoa, Jon eta Amaia. Jolas batzuk egin ditugu, baina jada aspertuta gaude denak. Xabat kexatzen hasi da:

—Aspertuta nago! —oihukatu du—. Oraindik denbora asko falta da helduak iristeko! —jarraitu du kexatzen.

—Egia da! —jarraitu dio Jonek Xabaten kexari.

—Ados nago eta badakit zer egingo dugun —adierazi diet.

—Zer? —galdetu du Aitorrek.

—Hori, hori! Zer? —oihukatu du Ainhoak.

—Itxaron! Oraintxe esango dut, baina isil zaitezte! —oihukatu diet eta, honekin batera, isildu egin dira—. Istorio bat kontatuko dizuet; baina, ez da edonolakoa, nire txikitako istorio bat da.

Hori entzun bezain azkar, denak biribil batean eseri dira. Beren begiak eta belarriak zorrotz jarri dituzte istorioa entzuteko prest. Haur guztiak horrela ikusten ditudan bitartean, gustu handiz kontatuko diet istorioa.

—Prest al zaudete guztiok? Hastera noa. Hamahiru urte nituenean, Beñatek, Maitanek, Alexek, Uxuek, Martinek eta nik apustu bat egin genuen. Izan ere, bazegoen neska koadrila bat oso ezagunak zirenak, eta beti haiek esandakoa egin behar zen. Haietako baten izena Ane zen. Behin Anek esan zigun etxe batean bera bakarrik egon zela aste osoan eta guk, jakina, ez genion sinetsi, beti gezurretan baitzebilen. Guk esan genuen bi aste ere erraz pasako genuela abandonatutako etxe zahar handi batean. Berak ezetz zioenez, apustua egin genuen: galtzaileak besteari aste guztian etxerako lanak egin beharko zizkion. Guk, jakina, onartu egin genuen, uste genuelako seiok elkar lagunduz, erraza izango zela. Maletak hartu eta etxe abandonaturantz abiatu ginen. Iritsitakoan, beldur pittin bat eman zigun, oso zikina baitzegoen, armiarma sarez betea... Baina batak bestea animatuz, etxera sartu ginen. Bertan egin genuen lehenengo gauza etxea garbitzea izan zen. Denbora asko egon ginen, oso handia baitzen. Dena garbitu bezain azkar, maletak hustu eta gauza bakoitza bere tokian jarri genuen. Afaltzeko, xerra xamur bana jan genuen. Pixkatxo bat erreta zegoen; baina, guk egina izateko, oso ona zegoen. Lo egitea ere ez zitzaigun batere kostatu. Horrela, egunak joan egunak etorri, aste bat pasa zen, baina gau batean soinu arraroak entzuten genituen eta...

—Zer gertatu zen? Nor zen? —galdetu dit Malenek, jakin minez.

—Itxaron pixka bat, oraintxe esango dut —erantzun diot; denak isildu eta istorioa kontatzen jarraitu dut—. Esaten ari nintzen bezala, soinu bitxiak entzuten genituen eta itzalak ere ikusten genituen. Lehenengoz, haizea izango zela pentsatu genuen, baina oker geunden; izan ere, bat-batean, mahai gaineko pitxer bat erori zen lurrera eta zati txikitan puskatu zen. Beldurrez ertz batean geratu ordez, zer zen begiratzea erabaki genuen, ausardia erakutsiz. Bakoitzak makila luze bat eskuan hartu eta etxea miatzera abiatu ginen. Handia zenez eta beldurturik geundenez, bikoteka joan ginen, bakoitza pisu batera. Etxeak hiru pisu zituen. Beñat Maitanerekin lehenengo solairua arakatzera joan zen, Uxue Martinekin bigarren solairua arakatzera eta ni Alexekin ganbara arakatzera joan nintzen. Ganbara zen lekurik beldurgarriena eta, ziotenez, gu ginen taldeko ausartenak. Lekurik beldurgarriena zelako, ez nengoen horren gustura; baina Alex zen nik begiko nuen mutila eta berarekin bakarrik egongo nintzen. Ganbarara igotzeko egurrezko eskailera zaharrak ziren beldurra ematen zuten lehenengo gauzatako bat. Dena armiarma sarez estalia zegoen. Han ez zegoen argirik eta bertan zegoen kandela bat hartu genuen. Ganbaran zerbait txuria ikusi genuen mugitzen. Beldurrez, Alex eta ni besarkatu egin ginen. Hori izan zen nire bizitzako momenturik onena. Gainera, besarkada luzea izan zen, biak oso gustura baixeunden. Ausardia erakustea erabakita, gauza txuri hori zer zen ikertzea erabaki genuen.

—Zer zen? —moztu dit Jonek.

—Alex zure senargaia izan al zen? —galdetu dit Malenek—. Orain berarekin ezkontuta zaude eta hamahiru urte zeneuzkanetik izan zarete bikote?

—Itxaron pixka bat eta utzidazue kontatzen moztu gabe, mesedez —erregutu diet ahots finez. Izan ere, ez zait batere gustatzen, hitz egiten ari naizenean, beste norbaitek mozte—. Gauza txuri horrengana hurbildu eta manta bat zela ohartu ginen. Manta altxatu eta... Ane zen! Gu beldurtu nahian zebilen, etxetik irten gintez, baina ez zuen lortu. Hitz egin genuen zer egin apustuarekin eta jarraitzea erabaki genuen. Jada aste bat pasa zen eta, janaria amaitzen ari zenez, oso gutxi jan behar izan genuen; izan ere, ezin genuen ezergatik ere etxetik irten. Orduan, etxea berriz miatzea erabaki genuen, ea janaririk aurkitzen genuen suerte pixka batez. Sukaldera joan ginen lehenengo; izan ere, normalena janaria sukaldean egotea da. Han hozkailu handi bat zegoen bete-beterik; denetik zegoen: pastelak, txorizoa, esnea, zukuak... Lasai geratu ginen, janaria bazegoela jakinda. Afaltzeko ordua zen. Hozkailura joan ginen janari bila, izugarrizko gosea baikenuen. Hozkailua ireki eta ia dena hutsik zegoen! Zer gertatu ote zen? Ea nork asmatzen duen?

—Berriz ere Ane sartu zen zuek beldurtzeko? —galdetu du Amaiak.

—Ez! —erantzun diot.

—Mesedez, jarraitu kontatzen; bestela, asmatu arte... —erregutu dit Malenek.

—Errenditu egiten zarete? Ongi, ba, segituko dut —erantzun diet. Beste inoiz baino adiago jarri dira; egia esan, ez ditut inoiz horren adi ikusi—. Hozkailua hutsa zegoela ikusirik, Ane izango zela pentsatu genuen eta berriz ere etxea miatu genuen. Ohea irekita zegoen eta nahiko beroa. Horrek esan nahi zuen norbait ohean egon zela gu iritsi baina pixka bat lehenago. Ane ez bazen, zein ote zen? Denok oso beldurturik geunden; izan ere, lapur bat zen, agian. Bat-batean, Alexek esan zuen norbaitek bizkarra ukitu ziola. Jarraian, niri ere norbaitek bizkarra ukitu zidan. Atzera begiratu eta ez zegoen inor. Ustekabean, ahots batek ganbarara joateko esan zigun eta lasai egoteko, ez zigula minik egingo. Joan ginenean, zerbaitek distira egiten zuen. Izpiritu bat zen! Bere istorioa kontatu nahi zigun eta lurrean eseri ginen biribil batean. Bere izena Joxepe zen. Izen xelebrea zuen. Kontatu zigun bera etxe horretan bizi zela duela 500 urtetik: *Oso aberatsa nintzen, baina egun batean lapur batzuk etorri eta nire familia guztia hil zuten. Ni armairu baten barnean ezkutaturik nengoen eta bizirik irtetea lortu nuen. Handik ehun eta bost urtera, hil zorian nengoen; baina, hil ondoren, nire gorputza ohean geratu eta nire arima hegan zebilen. Honela iritsi naiz izpiritu izatera.*

—Benetan gertatu zen hori? —galdetu dit Aitorrek.

—Jakina baietz! Orain kontatzen ari naizen guztia benetan pasa zitzaidan —erantzun diot.


—Nik ere honelako abentura zoragarri bat izan nahi dut! —esan du Amaiak.

—Nahi baduzu, bizi dezakezu; baina, horretarako, zure buruarekiko konfiantza eduki behar duzu. Baina, tira, hau ez da guztia, oraindik gauza zoragarri gehiago daude —hori esan eta istorioarekin jarraitzea erabaki dut. Geroz eta gogotsuago kontatzen ari naiz istorioa; izan ere, oso gustura ikusten ditut haur guztiak—. Honela jarraitzen du istorioak. Izpirituarekin hitz egiten egon ondoren, herri guztiari kontatzea proposatu genuen. Berak ez zuen nahi, agian beldurtu egingo zirela eta. Gu ez baginen beldurtu, besteak ere ez zirela beldurtuko esan genion eta konbentzitu ere egin genuen. Jada apustua bukatu zen eta kalera irten behar genuen. Kalera irten baino lehen, balkoira atera eta, bozeramaile baten bidez, esan genuen etxe horretan izpiritu bat bizi zela. Jende ugari zegoen guri aditzen eta denek barre egin zuten. Anek esan zuen egia bazen erakusteko. Jendea Anerekin bat zegoen. Izpiritua balkoira irten zenean denak aho zabalik geratu ziren. Nolatan ezagutu genuen galdetzen zuen jendeak. Dena kontatu genien, apustuarena eta guzti. Egundik hori izan zen onena; gainera, etxea hobetu zioten izpirituari, bere bizitzari buruzko museoa egin zuten, oso ospetsua egin zen... Ezin zen gehiago eskatu. Gainera, guk apustua irabazi genuen eta Ane, orduz geroztik, ez zen horren popularra izan. Popularrenak gu ginen momentu horretan.

—Benetan hori gertatu zela? —galdetu du Aitorrek.

—Bai, halaxe da —erantzun diot.

—Guk ere horrelako abenturaren bat izan behar dugu! Goazen! —esan du Malenek.



*Mireia Zinkunegi*

Haur guztiak poz-pez lorategira joan dira jolastera eta ni haiei begira nago, nire txikitako momentuak gogoratzen. Haiek bai garaiak!

*Alaitz Miera*

## 27 egun Tifleten

Gaur etxetik irten naizenean, denak normala zirudien. Buelta bat emateko asmoarekin irten naiz kalera, baina euria ari zuen; ondorioz, etxera itzuli naiz eta, zer egin ez nekienez, aurreko neguan gertatu zitzaidana gogoratzen hasi naiz.

Urtarrilaren 8a zen. Egun hartan, Saharara joan behar nuen argazki batzuk ateratzera, modeloa bainintzen eta, han nengoen bitartean, bertan zeuden haur eta familia behartsuei ahal nuen moduan laguntzen saiatzeko asmoa nuen. Ondorioz, nire familia agurtzera joan nintzen goizean. Nire aita Euskal Herriko lehendakaria zen eta, ondorioz, ia beti lanean egoten zen eta oso denbora gutxi egoten zen gurekin, familiarekin. Hala ere, ahal zuenean, asko laguntzen zidan; esaterako, berak lagundu zidan moda munduan sartzen eta, orduetik aurrera, oso ondo doakit. Nire anaiarekin ere, Josebarekin, oso ondo konpontzen nintzen. Ni baino hiru urte zaharragoa zen eta ni zaintzeaz arduratzen zen beti.

Iritsi zen eguna, iritsi zen ordua. Arratsaldeko zortziak ziren eta Saharara joateko hegazkina hartu behar genuen nik eta nire aitaren laguntzaile batek, Mikelek. Oso eguraldi txarra egiten zuen; euria ari zuen, haize bortitza zebilen eta trumoi batzuk entzuten ziren. Niri beldur pixka bat sartu zitzaidan, eguraldia ikusita; baina, hala ere, Saharara joateko gogo handia nuenez eta hegazkin gidariak arazorik jarri ez zuenez, lasaiago geratu nintzen. Hegazkinean sartu eta segituan aireratu ginen.

Aireratu eta ordubetera, eguraldia okertzen hasi zen. Gainera, gidaria, Juan, eta bere laguntzailea hitz egiten entzuten nituen:

—Juan, eguraldia okertzen ari da eta, horrela jarraitzen badu, ezin dugu aurrera jarraitu.

—Badakit, gertuen dagoen aireportuan lurreratuko dugu hegazkina.

Hori entzutean, beldur handia sartu zitzaidan gorputz osoan. Ez nekien zer egin, hegazkina geroz eta gehiago ari zen mugitzen. Mikel ni lasaitu nahian zebilen, *Ainhoa, dena ondo irtengo da, lasai egon* esanez; baina berari ere beldurra nabaritzen zitzaion aurpegian.



—Juan, ezin dugu hurrengo aireportura arte itxaron. Larrialdizko lurreratzea egin behar dugu —esan zion gidariaren laguntzaileak Juani.

Begiak itxi nituen. Orduan, hegazkina beherantz zihoala nabaritu nuen. Nire aurrean zegoen eserlekuaren aurka jo eta buruan kolpe bat hartu nuen. Momentu horren ondoren, dena ilundu zen nire buruan.

\*\*\*\*\*

Pierre Tifleten bizi zen, Afrikako herri txiki batean. 26 urte zituen eta, gurasoak hilda zeuzkanez, bere txakurrarekin bakarrik bizi zen egurrezko etxola batean. Gaueko bederatzi eta erdiak ziren eta Pierre afaltzen ari zen. Bat-batean, zeruan argi batzuk ikusi zituen eta geroz eta gertuago zeudela nabaritzen zuen. Hegazkin bat zela iruditu zitzaion; baina, gero, hobeto pentsatu zuen eta hori ezinezkoa zela ikusi zuen; izan ere, Tifleten ez zegoen aireporturik.

Baina ez zen ezinezkoa. Zerbaitek lurraren aurka talka egin zuela konturatu zen. Hegazkin bat zen, zalantzarik gabe. Talkaren ondoren, inguruan zeuden zuhaitzak su hartzen ari zirela ikusi zuen. Pierre oso pertsona ona zenez, bertan zaurituak egon zitezkeela pentsatu zuen eta, beraz, zira jantzi eta hegazkina erori zen lekura joan zen bere txakurrarekin, zer gertatu zen ikustera. Bertara iristean, bi gizon aurkitu zituen eta pultsua hartu zien ea bizirik zeuden jakiteko.

—Kaka zaharra! Hilda daude!

Orduan, bere txakurraren zaunkak entzun zituen eta bertara gerturatu zen. Beste gorputz bat zegoen lurrean eta buruan kolpe bat zuela konturatu zen eta honi ere, segituan pultsua hartu zion. Pierreri irribarre bat atera zitzaion aurpegian: neska hori bizirik zegoen, bizirik nengoen. Momentu horretan begiak ireki nituen.

—Buruan min handia dut, lagundu! —esan nuen, ia hitz egin ezinik.

Pierrek ez zidan ulertu, berak ingelesez bakarrik hitz egiten baitzuen. Baina, hala ere, minez kezkatzen ari nintzela sumatu zuen eta zirarekin estali zidan, besoetan hartu eta bere etxolaraino eramane zidan. Etxolara iristean, Pierrek bere ohean etzan ninduen eta, arropa guztia bustia nuenez, arropa kendu eta manta batekin estali zidan. Egun osoa lotan pasa ondoren, pixkanaka esnatzen joan nintzen, baina ezin nuen asko mugitu; gorputz guztian mina sentitzen nuen mugitzean. Pierre, esnatu nintzela konturatu zenean, nigana hurbildu zen. Begiak ireki nituenean, mutil eder bat ikusi nuen, begirada sakona zuena. Baina ez nekien nor zen, eta beldurtu egin nintzen.

—Nor zara zu? Non nago? Zer pasa da?

Orduan ere, ez zidan ulertu. Baina ni ingelesa zela konturatu nintzen eta, nik hizkuntza hori nahiko ondo menderatzen nuenez, galdera berriz errepikatu nion ingelesez.

—Lasai, buruan kolpe handi bat hartu duzu eta ezin duzu esfortzu handirik egin. Ni Pierre naiz eta zu? —esan zidan, lasaiago, elkar ulertzen genuela konturatzean.

Ni Pierreren galderari erantzuten saiatu nintzen. Oso galdera erraza zen, baina ezin nuen erantzun, ez nekien erantzuna.

—Ba... ez dakit, ez dakit nor naizen.

—Nola? Nola ez dakizula nor zaren? —galdetu zidan Pierrek, harrituta.

—Ez dakit, ez naiz gogoratzen nor naizen. Baina zergatik? Ez dut ulertzen...

—Lasai. Agian buruan hartu zenuen kolpeagatik da —erantzun zidan, ni lasaitu nahian.

—Ze kolpe? Ez dut ezer gogoratzen.

—Orain dela egun bat, hegazkin bat erori zen hemen aurrean. Zu bertan zindoazen beste bi gizonekin, baina horiek hilda aurkitu nituen.

Nik zerbait gogoratu nahian jarraitzen nuen, baina ez nintzen ezertaz oroitzen.

—Eta ez al neraman poltsa, kartera edo horrelako zerbait? Bertan nire izen-abizenak egon litezke —galdetu nion, informazio gehiago lortu nahian.

—Ez, ez zidan denborarik eman. Euri asko ari zuen. Baina lepoan lepoko bat duzu A letrarekin. Seguruenik, zure izena A letraz hasiko da.

—Ez dakit, agian. Eta ezin al diozu poliziarari deitu?

—Ez, hemen ez dago telefonorik. Gainera, mendi altuetan gaude eta eguraldi honekin inork ezin du honaino igo. Eguraldia hobetzen den arte hemen geratu beharko duzu. Orain, zer iruditzen zaizu zure izena aukeratzen badugu?

—Ongi! Baina nik ez ditut izenak gogoratzen.

—Hemen A-rekin hasten diren izenak ez daude asko: Aminata, Any, Aicha...

—Ba horietatik Any gustatzen zait gehien. Hemendik aurrera, ni Any naiz.

\*\*\*\*\*

Bitartean, Euskal Herrian, nire gurasoak oso urduri zeuden; izan ere, ez zuten gure notziarik jaso hegazkina hartu genuenetik.

—Aita, zer pasa ote zaio Ainhoari! Non dago? —galdetu zuen Josebak larriturik.

—Ez dakit, baina lasai, oraintxe eman dut agindua bera bilatzen hasteko.

—Aita, eta zerbait txarra pasa bazaio? Ez al da...

—Ez! Joseba, hori ez! Zure arreba ongi egongo da.

Momentu horretan, nire aitak dei bat jaso zuen. Jendea bilatzen zuen talde bat zen. Bertako buruak esan zion oso eguraldi txarra zegoela eta eguraldi horrekin norbait bilatzen hastea oso arriskutsua zela; ondorioz, eguraldia lasaitu arte itxaron beharko zutela.

Deia moztu zuenean, familiari esan zion gertatzen ari zena eta hauek, oraindik eta urduriago jarri ziren.

\*\*\*\*\*

Tifleten, gauzak berdin jarraitzen zuten. Bost egun neramatzan bertan. Burua askoz ere hobeto nuen; jada ez zidan minik ematen. Orduan, Pierreri laguntzen nion janaria prestatzen, etxola garbitzen... Gure arteko harremana oso ona zen, geroz eta hobea. Niri Pierre oso pertsona ona eta ederra iruditzen zitzaidan eta uste dut, berari ere gauza bera gertatzen zitzaiola nirekin, baina ez zen ausartzen niri ezer egitera.

Bi egun gehiago pasa ziren, hiru, lau. Euria gero eta gutxiago ari zuenez, Pierrek arrantzatzen, zaldian ibiltzen, janaria prestatzen... erakutsi zidan. Gainera, denborarekin gauza asko gogoratzen ari nintzen; nire aita Euskal Herriko lehendakaria zela gogoratu nuen eta baita modelo nintzela ere. Ondorioz, Pierrek esan zidan, Euskal Herrian hain ezaguna banintzen, laster etorriko zela norbait nire bila eta nire herrira eramango zidala. Orduan konturatu nintzen ez nuela hori gertatzea nahi; izan ere, Pierrez maitemindu nintzen eta Euskal Herrira eramaten baninduten, ezingo nuke Pierrerekin egon.

\*\*\*\*\*

Euskal Herrian, gauzak hobeto zeuden. Azkenean, aurkitu zuten hegazkina erori zen lekua eta, gainera, leku hori aztertu ondoren, inguru horretan bizi zen pertsona bakarra Pierre zela konturatu ziren. Informazio guzti hori, segituan, nire familiari komunikatu zieten eta denak oso gustura jarri ziren. Hala ere, ez zekiten seguru norbait biziirik irten zen istriputik eta, alde horretatik, oraindik oso urduri jarraitzen zuten. Nire familia oso urduri zegoenez, nire aitaren laguntzaile batek joan behar izan zuen Tiflet aldera nire bila. Nire aitaren laguntzaileak Martin izena zuen eta Josebarentzat eta niretzat osaba bat bezala zen.

Iritsi zen hurrengo eguneko goiza. Martin eta beste laguntzaile batzuk Tifleterantz abiatu ziren. Tifleten ondoan zegoen hiri batean lur hartu zuten eta Tifletera auto batean joan ziren.

Pierreren etxolako egutegiaren arabera, otsailaren 4a zen. Goiz hartan, esnatu eta segituan, nire aita eta anaiaren aurpegiak etorri zitzaizkidan burura. Segituan, Pierreri esan nion eta bera ere asko poztu zen, memoria berreskuratzen ari nintzela jakitean. Gosaria batera prestatzen ari ginen, eta bat-batean, auto hotsa entzun genuen. Pierrek eskopeta bat hartu zuen badaezpada ere eta etxolaren kanpora irten zen, nor zen ikus-tera.

—Zu al zara Pierre? —galdetu zion Martinek.

—Bai, ni naiz. Nor zarete zuek? —erantzun zuen, eskopetari gogor eutsiz.

—Gu Euskal Herrikoak gara. Hango lehendakariaren laguntzaileak.

—A, zuek zarete! Any barruan dago, sartu —esan zion Pierrek, lasaiago.

—Any? Ainhoa esan nahi al duzu? Bizirik al dago?

Orduan, nik Martinen ahotsa ezagutu eta kanpora irten nintzen.

—Martin! Zu zara! —ilusio handiarekin, besarkada bat eman nion.

—Zure familia oso urduri dagoenez, ezin izan du etorri eta horregatik etorri naiz ni. Zer moduz zaude?

—Orain ondo. Saharara eraman behar gintuen hegazkina erori egin zen ekaitz gogorragatik eta buruan kolpe handi bat hartu nuen. Baina Pierrek bertatik onik atera ninduen. Beragatik nago bizirik —azaldu nion Martini.

Martinekin hitz egiten ari nintzen bitartean, Pierre oso triste zegoela konturatu nintzen.

—Pierre, salbu gaude, bizirik irten gara. Orain, etxola honetatik joateko aukera dugu —esan nion, alaitu nahian.

—Zuk bai, zuk zure herrira itzuli behar duzu; baina nik hemen geratu beharra daukat, hau da nire lekua.

—Beno, nik bakarrik utziko zaituztet. Laster itzuliko naiz —esan zuen Martinek, gure artekoa ikusita.

—Any, bagenekien egoera honetan noizbait aurkituko ginela —jarraitu zuen Pierrek.


—Badakit; baina nik uste nuen, momentua iristen zenean, konturatuko zinela gu bion artean...

—Bai, Any, badakit! Egun hauetan zerbait berezia sortu da gu bion artean, baina oso ezberdinak gara. Zu lehendakari baten alaba zara, Euskal Herriko modelo ezagun bat, eta ni, ordea, pertsona behartsu bat naiz, ez daukat ezer, ez nahiz ezer...

—Bizitzan ezagutu dudan pertsonarik onena zara. Gutxi iruditzen al zaizu hori?

—Ez, baina esan dizut zein den arazoa: bi mundu ezberdinetan bizi gara. Agurtu egin behar dugu.

Nik, oso triste, musu handi bat eman nion ezpainenetan eta Martinen bila joan nintzen, Euskal Herrira itzultzeko. Egun hartan bertan, hegazkina hartu eta Euskal Herrira



*Ane Arriola*

itzuli ginen. Nire familia guztiarekin berraurkitu nintzen, denak oso hunkituta zeuden, harrituta, ni bizirik ikusteaz.

\*\*\*\*\*

Malkoak erori zaizkit aurreko neguko istorioa gogoratzean. Oraintxe, Pierre sartu da nire gelara, eta biok batera gogoratu dugu istorioaren bukaera; izan ere, lehen ez dut istorioa bukatu.

Familiarekin berraurkitu nintzen, lagunekin, lankideekin... baina, hala ere, hutsune handia nuen nire bihotzean. Bihotzeko zati handi bat Tifleten geratu zela nabari nuen. Baina, zorionez, handik bi egunetara Pierre nire etxean azaldu zen. Ezin nuen sinetsi, nire familiak hegazkina ordaindu zion eta Euskal Herrira etorri zen. Nigana etorri zen.

Egun hartatik aurrera, elkarrengandik banandu ere egin gabe egon gara; izan ere, nahiz eta gure bizitzak mundu ezberdinetakoak izan, gure bihotzak batera daude eta batera egongo dira betirako.

*Larraitz Arregi*

## Amesgaiztoa

Mariak erabaki bat hartu du. Badoa gurasoen etxetik, bakarrik bizitzeko gogo du eta. Ikasketak bukatzen ari da, eta familia on bat bilatzeko garaia heldu zaio.

Amari ez zaio ongi iruditzen bakarrik bizitzera joatea; gazteegia dela esaten dio. Baina bera, burugogorra denez, bakarrik bizitzera joaten da. Egunero unibertsitatera joateaz ahaztu eta gau eta egunak hegazkinean pasatzeko ordua da, azafata izateko ikasketak egiten ari baita.

\*\*\*\*\*

Ohean etzanda, hankak zabal-zabal eginda dago, pentsakor. Jonerekin hitz egiteko gogo du, bera baita gauza guztiak kontatzen dizkion pertsona bakarra. Buelta asko eman baino lehenago, mugikorra hartu eta deia egiten hasi da Maria, Jonerekin gertatzeko asmoz.

—Bai? —Jonek erantzun du mugikorraren beste aldetik.

—Kaixo! Zer moduz?

—Ongi, zu ere bai? —erantzun dio.

—Bai, hemen, parkean, umearakin.

—Ai! Ze ongi! Kafe bat hartzeko denbora baduzu?

—Bai, noski. Etor zaitetz parke aurreko kafetegira —esan dio, umeari eskularria jartzzen ari zen bitartean.

—Ondo da. Segituan izango naiz hor! Orain arte!

—Bai, aio! —moztu dute mugikorra.

Ohetik altxa eta armairu aurrean jarri da, ze jantzi pentsatzeko. Baina bi aldiz pentsatu gabe, galtza beltz batzuk eta niki arrunt bat hartu eta badoa kafetegira.

Kafetegi aurrean utzi du autoa, eta barrura doa. Sartu eta berehala ikusi du Jone, umeari gailetak ematen.

—Kaixo Jone! —esan du, irribarre batekin.

—Iritsi zara! —erantzun dio.

—Bai.

—Nahi duzu zerbait edateko? —galdetu dio.

—Bai, kafesne bero bat, mesedez.

—Ongi, oraintxe ekarriko dizut.

Badator mahaira Jone, eskuetan kafesne beroa dakarrela. Mariak segituan eman dio lehenengo tragoa, sabela berotzeko beharra baitzeukan. Jonerekin elkarrizketa luzea izan du, eta hurrengoan bazkaltzera elkarrekin joango direla geratu dira. Izan ere, ez dira asko geratzen azkenaldian, umearekin egoten baita Jone eta Maria berriz, ikasketak bukatzen ari da. Lehen, gazteagoak zirela, gehiago geratzen ziren, parrandara biak batera joateko normalean. Gai hortaz hitz egitean, haiek garai onak zirela aipatzen zuten behin eta berriz. Jone eta bere senarra ezagutu ziren eguna ere gogorarazi diote elkarri, barrezka ari direla.

\*\*\*\*\*

Eskailerak jaitsi eta portalerantz doa Maria. Gaua da eta ilun dago dena. Argia piztu eta beheko ispiluan begira dago, ilea ongi jarri eta atea ireki du.

Bertan, jendea ikusi du, besterik ez. Jende asko. Soldaduak dirudite, berde ilunez jantzita baitaude denak. Pauso berdinak ematen dituzte aldi berean, eta aurrera begira daude guztiak. Erdian gizon bat daukate, ohe moduko batean etzanda, eta airean daramate, zurezko helduleku batzuetatik eutsiz. Gizonak ia ez duela ilerik dirudi, baina daukan ile gutxi hori beltza duela iruditzen zaio. Ez du oso ongi ikusten baina bere aitoren antza duela nabaritu du. Nahiko zaharra delako, agian.

*Baina zergatik hau?* hasi zaio galdetzen bere buruari. Mina sentitu du sabelean gora, beldurra. Gizona ez da mugitzen, hilda ote dago? Ez du ezer ulertzen, baina senak bere aitona dela esaten dio.

Izerditan blai, beldurak jota dago. Ezin duela egia izan pentsatzen du. Bat-batean, etzanda zegoela, salto azkar bat eman eta eseri egin da. Pentsamendu nahasiak etorri zaizkio burura. Ametsa zela konturatu da. *Ametsa zen* esan dio bere buruari. Amesgaiztoa.

\*\*\*\*\*

Lo egin ezinik, kafe bat hartu eta telebista ikustera joan da. Lasaitu beharra dauka. Telebista ikusten hasi da, baina ez du kontzentratzea lortzen. Zaila egiten zaio ulertzea; ametsa izan da, baina ez da beste ametsak bezalakoa izan. Benetan pasatuko balitz bezala iruditu zaio.

Goiza iritsi da, eta sekulako logura du. Ispilura begiratu eta ez duela oso aurpegi ona konturatu da. Orduan, gelara sartu eta ohean etzan da, lo egiteko asmoarekin.

Ur tantak gorputzean sentitzen dituen bitartean, aitonaren etxera joateko beharra sentitu du. Dutxatzea azkar bukatu eta deia egin du. Amonak gustura erantzun dio, baina aitona ondo dagoen galdetu dioenean, arraroa iruditu zaio. Amonak ondo dagoe-la esan dio, eta ea zergatik galdetzen duen. Baina Mariak, esplikaziorik eman gabe, bisi-tan joango dela esan dio. Orduan amona pozik jarri da.

\*\*\*\*\*

Bizikleta hartu eta aitona-amonaren etxera abiatu da. Zain zeukan amona sarrerako ate aurrean.

—Kaixo! —esan dio amonak.

—Kaixo amona! —erantzun dio.

—Zer moduz?

—Ongi, zuek ere bai?

—Bai.

Amonak sofán eseri eta kontatzeko esan dio. Baina Mariak, aitona bi musu eman eta, entzun ez balu bezala, gaiak aldatu du. Ez baititu ez amona ezta aitona ere urduri jarri nahi.

—Aspaldi bisitarik ez nizuela egin eta, tartea nuenez, etorri egin naiz —esan zuen, aitzakia jarritz.

—Ongi, ongi! Laster lanean hastekoa zara ez? —galdetu zion jakin-minez.

—Bai. Ikasketak bukatzeaz ditut, eta lanean hasiko naiz.



—Kontuz ibili, e? —amonak urduri.

Amonari, ez zitzaion asko gustatzen egunero hegazkinean ibili behar hori. Aitona pilotua izan zen garai batean, eta urduri ibiltzen zen beti, hegazkinetik eroriko ote zen beldurrez. Aitonari, berriz, poza ematen dio, bere bidea jarraitzen ari baita; halere, lasai ez da gelditzen, arriskutsua baita egunero hegazkinean ibiltzea. Baina, aitona esaten duen bezala, hegazkinean bakarrik ez dago arriskua, denok gaude arriskuan, bai airean eta baita lurrian ere.

\*\*\*\*\*

Ezin dio ametsaz pentsatzeari utzi. Lo ongi egin du, baina norbaiti kontatzeko gogo du. Joneri deitu dio:

—Jone! Nire etxera etortzea bai?

—Kaixo! Zerbait gertatu da? —esan dio harrিতuta.

—Ez, ezertxo ere ez. Gauza bat kontatu nahi dizut.

—Ba, orain ezin dut joan, baina umea ikastolatik irten bezain laster joango naiz.

—Ongi da. Dena ongi ezta? —galdetzen dio jakin-minez.

—Bai, primeran. Zu zer moduz zaude? Lanean hasi zara?

—Ni ere ongi, bai. Lanean astelehenean hasiko naiz.

—Ongi, ongi. Beno, gero joango naiz orduan.

—Bale ba, gero arte!

—Agur!

Mariak bazkaldu eta telebista piztu du. Baina Jone atean zegoela konturatu da. Horregatik, telebista itzali eta atea ireki dio. Sukaldean eseri dira eta eguneroko kontuez hitz egiten hasi dira, Jone umeari jateko zerbait ematen ari den bitartean. Telebista aurrean eseri da Maria, eta Jonek, lagunaren jokabidea ikusi duenean, berak ere gauza bera egin du. Segituan, aulkitik altxa eta sofaren alde batean eseri da.

Gehiago nahastu gabe, dena argi eta garbi azalduko diola esan dio, hasi baino lehen, eta kontatzen hasi zaio amestu duen guztia. Baina Jonek, normala izango balitz bezala, ez dio garrantzi handirik eman, lasaitzeko besterik ez dio esan, egun txarra izango zuela.

\*\*\*\*\*

Amonak deitu dio, aitona ospitalera daramatela esanez. Telefonoa moztu eta segituan hartu du autoa eta badoa amonarengana, dena zehatzago ulertzeko asmoarekin.

Etxe aurrean zeukan zain, autoan sartu eta iritsi dira ospitalera. Baina beranduegi: aitona ospitale bidean hil egin dela esan die medikuek. Amona, hori entzun orduko, negar batean hasi da, anbulantziara ez igotzeaz damutu egin baita.

Mariak, amona horrela ikusita, ezin izan die malkoei eutsi, eta lehenengo etorri zaion pentsamendua ametsa izan da. Egia bihurtu ote da amesgaiztoa? Ez daki zer pentsatu neskak. Momentu honetan, amonari laguntzea baino ideia hoberik ez du.

\*\*\*\*\*

Igandea da. Ezer egiteko gogorik ez du. Aitona joan da, eta amona ez dago oso ondo. Maria arraro sentitzen da. Ametsa, ametsa eta ametsa besterik ez du buruan. Orduan, amari deitu dio, ea zer moduz dagoen jakiteko. Amona zaintzen ari dela esan dio. *Gajoa* pentsatu du bere artean. Amona gaizki, ama gaizki, bera ere gaizki.

—Bai?

—Jone naiz, zer moduz zaude?

—Hemen —esan dio, zer esan ez zekiela.

—Aizu! Eguna alaitzeko, gauean buelta bat ematera irtengo al gara biok?

—Eskerrik asko, baina ez daukat gogorik.

—Nola ezetz? Bai, bai, hamaiketarako prestatu zaitez! Joango naiz bila eta!

Ez zen agurrik ere izan deiaren bukaeran. Jonek segituan moztu zuen, ez zuen Mariaren ezezkorik entzun nahi. Mariak, berriz, ez zuen gogo handirik, baina burua beste gauzetan pentsatzen jarri nahi zuenez, joatea erabaki zuen.

Afaldu eta dutxara joan zen segituan. Ez zuen prestatzeko segundo bat ere galdu nahi. Dutzatu eta jantzi ondoren, begiak margotu eta portalera jaitsi zen.

\*\*\*\*\*

Dantza asko egin zuten, bai Jonek eta bai Mariak ere. Jada ez ziren gogoratzen izan zuten egun txar hartaz, eta ez ziren hurrengo egun arte gogoratuko. Han bertan jende asko zegoen beren inguruan, eta denak izerditan blai zeuden. Jonek, deskantsatu nahi zuen eta ondoan zeukan aulki batean eseri zen. Maria, Jone eserita zegoela konturatu zenean, komunera joateko aprobetxatu zuen. Eta ez zitzaion gaizki etorri, bidean norbait berezia ezagutu baitzuen.

Hitz egiten hasi ziren eta, konturatu gabe, denbora pasa zuten hizketan. Jone ere hurbildu zitzaion, etxera zihoala esanez, ezin zuela gehiago. Mariak berarekin ez zuen joan nahi, baina lagunduko ziola esan zion. Jonek, ordea, ez zion utzi. Ongi ezagutzen zuen eta bazekien ez zuela berarekin joan nahi, bazekien ongi, mutil hura gustatu zitzaiola.

Jone agurtu zuen, bihar deituko ziola esanez eta Lukasekin hizketan jarraitu zuen. Pixkanaka, elkar ezagutzen ari ziren, eta Maria gehiago gerturatzen zitzaiola konturatzten hasi zen. Berak ez zuen atzera egin, haria jarraitu zion. Telefono zenbakia ere eman zion.

Komunean bukatu zuten biak, elkarri hitz goxoak esanez. Lehenengo begiradatik konturatu ziren elkarren gustukoak zirela. Mariak, gaua bukatu baino lehen, berriz elkartuko ote ziren ere galdetu zion. Lukasek ez zion ezezkorik eman.

\*\*\*\*\*

Asteburua berarekin pasa zuen. Ez ziren urrundu ere egin. Baina astelehenean Maria lanean hasten zen eta ezin izan zuten geratu. Berarekin pasa zituen aitona hil eta hurrengo egunak eta, egia esanda, ez zen gogoratu ere egin aitonaz. Baina goiz hartan, hura ondoan ez zuenean, negarra deika zuela sumatzen zuen.

Lanean kontzentratu beharra zeukan, lehenengo aldiz hegazkinean sartuko zen eta, hizkuntza guztiak ongi ez zituenez dominatzen, saiatu egin behar zuen. Beldur pixka bat ere bazuen hegazkinarekin, baina bere bizitzako lana hori izango zen, beraz, egin beharra zeukan.

Dena ongi joan zen, bidaia guztia ongi egin zuen. Bai joan eta bai etorri. Etxera iristeko desiratzen zegoen. Lukasen irribarrea sentitzeko gogoz. Deitu egin zion.

—Maitea! Ongi eguna? —pozik.

—Bai, beno! Geratzeko asmorik bai?

—Noski.

—Gaur nire etxean? —galdetzen dio, berarekin egoteko gogoz.

—Bai, nahi duzuna.

—Ongi da, gero arte! Muxu bat!

—Bai, beste bat zuri!

\*\*\*\*\*

Hegazkina hartu du, pozik. Jende asko dago gaur, baina jendea ezagutzeko gogo du. Hegazkina aurreko egunean baino argiago dago, ez daki zergatik, argi berriak jarriko zituzten agian. Baina zerbait arraroa sumatzen du Mariak. Hegazkina ez doa aurreko egunean bezala. Bat-batean, beherantz doazela esaten du pilotuak. Jendeari, lasai egoteko esateko agintzen diote, baina zaila egiten zaio bera lasai egon gabe besteei lasaitzeko esatea. Garrasiak besterik ez dira entzuten. Baina garrasi horien artean, hegazkinean Lukas doala gogoratu zaio. Bera bilatzen hasi da, izerditan. Takoi altu haiekin ezin zuen. Azkenean, ia lurtean zirela, takoi altuak kendu eta Lukas ikusi du, han urrunean. Berarengana joaten hasi da. Baina ez dela iritsiko konturatu da, lurra joko dutela lehe-

nago pentsatu du. *Lukaaas!* oihukatzen hasi da, behin eta berriz. *Lukaaas!*

—Zer gertatzen da? Hemen nago, Maria.

—Ametsa zen? —galdetu du, harrituta.

—Bai, amesgaiztoa.

—Ene! Hegazkina eroriko da —esan du, begiak zabal-zabal eginda.

—Bai, zera! Ametsa errealitate bihurtuko delakoan, ala? —esan dio barrezka.

Baina Mariak ez du kontatzeko ganorarik izan. Ezta lorik egiteko ere. Azkenean, ohean bueltaka nazkatuta, jaiki eta baso bat esne edan du, errazago lo egiteko.

\*\*\*\*\*

Ez du gaur hegazkinean ibili nahi. Badaezpada. Baina, hala ere, prestatu eta lanera joan da. “Hegazkin horrek ez du abiatu behar” pentsatu du. Egia bihur daiteke. Denak erotuta dagoela pentsatuko dute, baina egin beharra du. Senak hegazkin hori ez dela ongi iritsiko esaten dio. Aitonak abisatu diola pentsatzen du. Aitonaren abisua da, seguru dago.


Aireportuan garrasika hasi da Maria, ero bat bezala. Kazetari guztiak hurbildu zaizkio, horrela ikusi dutenean. Hobe dela pentsatzen du jendeak telebistatik ikus dezan. Berak jendeari gertatuko denaren berri eman, besterik ez du nahi. Ez dakiela seguru esaten du, behin eta berriz, baina senak esaten diola. Batzuek erotuta dagoela pentsatuko dutela ere aitortzen du. Baina jendeak hori ez pentsatzeko, aitonaren heriotza jaritzen du adibide bezala. Aitonaren abisua dela oihukatzen du. Bera da, lagundu nahian dabil.

Denek ero moduan hartzen dute, nahiz eta batzuk badaezpada oporrak bertan behe-ra uzten dituzten.

\*\*\*\*\*

Hegazkinaren bideari begira dago Maria, bertako kameratetik. Eta bai, egia da. Erortzeaz dago. Bertako jende guztia hilko da. Heriotza izango da nagusi eta bere pilotu eta lankide guztiak hilko dira. Heriotzan pentsatzen jarri denean, Joneri deitu dio, non dagoen jakiteko. Etxean dago. Horra joateko esan dio. Baina moztu egin denez, ez daki Mariak Jone laguntzera joango zaion ala ez. Ondoren, Lukasi ere deitu dio, baina mugikorra itzalita daukala esaten dio telefonoaren beste aldeko andreak. Mutilaren lan-tegira deitu du, eta bere nagusiak esan dio hegaldi bat hartu behar zuela. Hitz horiek entzutean, telefonoa erori zaio eskuetatik. Begiak zabalduz, ezin duela egia izan pentsatu du. Malko sakonak erori zaizkio masailetan behera. Begien aurrean dauka hegazkina, lurrean sartuta. Han dago Lukas. Heriotzaren aurrean.

*Ane Arriola*



*Julen Etxabe*

# Ilargia


Gaueko ilunpean,  
zeruaren erdian,  
lurraren bihotzean,  
nire barrenean.

Batzuetan argal,  
besteetan lodi,  
ilargiak ditu  
lau aurpegi.

Ni etxeko aterpean,  
teilatupean,  
zure argipean.

Zu, izar artean.  
Izar artean,  
beti irribarrean,  
argal edo lodi,  
Ilargiak ditu  
lau aurpegi.

*Ander Beldarrain*




*Unai Etxeberria*

# Zu

Zu zara  
egunak alaitzen dizkidana,  
egun ilun bat argitzen didana,  
ezagutu zintudan egun beretik  
maite izan dudana.  
Bakarrik nagoenean,  
faltan botatzen zaitut.  
Zurekin nagoenean,  
denbora gelditzeko desioa dut.  
Nirekin ez zaudela ikustean,  
negar egiten dut,  
azken finean,  
maite zaitut.

*Gratxina Lertxundi*





*Karla Fernandez de Betoño*

# Hankak lurrean ezartzean...

## Lehenengo kapitulua

—Zeri ari zara begira? Berandu iritsiko zara!

Beti gauza bera gertatzen zait. Ate azpiko bidoi urdina hartu, kale izkinako iturri zaharrera joan, ordu erdi luzean itxaron kola egiten, bidoia urez bete eta berriz ere etxera bueltatu. Egunari kentzen dizkiodan berrogeita bost minutu denetara.

—Ez dizut berriz esango! —esan dit amak bigarren aldiz—. Hartu ogi zatia eta segi lanera. A! eta ez ahaztu Savukari hots egitea, honezkero itxaroten izango duzu. Hasperen egin eta *Bai, ama!* batekin etxeko ate zaharkitutik irten naiz goiz sargori honetan.

Trr, trr, trr... Hots zaratatsuak galarazten du Savukaren eta nire arteko elkarrizketa. Gela izkinako makinarena da, telak josteko erabiltzen duen tramankuluarena. Oihalak hartu, puntera kendu eta berriz josten ditugu, beste batzuek landu ahal izateko.

Txikiak ginenean hainbat ordu ematen genituen erreka txiki hartan: bertatik igarotzen ziren arrainak harrapatzen, beroa egiten zuen egun haietan bainu bat hartzen, ur bazterreko intsektuak biltzen...

Orain beste ikuspegi batetik begiratzen diot inguruari, errealitatearen leihotik.

16 urte ditut eta Nyasha izena jarri zidaten gurasoek. Familian laugarren partaidea Dhen da, nire anaia zaharra. Zoritxarrez, aspaldidanik ez dugu haren berririk. Ni eta gero, Zurbik etorri zen mundura, nire ahizpa txikia. Caledon izeneko Hego Afrika herrialdeko herri txiki batean bizi gara eta kolorekoak izanik, oztopoz betea dugu bizi-tza eroso bat eramatea, kanpotarrek gobernatzen duten herrialde honetan.

## Bigarren kapitulua

—Gabon! —ahopean esan eta gelako altzairuzko ate sendoa itxi du—. Ondo egin ezak lo, bihar egun gogorra izango duk eta!

Oinetakoak kendu eta ohe zaharrean bota dut nire burua. Alboko mahaitik ongi tolestutako paper zati bat hartu eta hamaikagarren aldiz irakurtzeari ekin diot, hasperen sakon bat eginez:

*Kaixo Dhen:*

*Honezkero esango zenuen garaia zela geure berri emateko! Zer moduz zu? Jada zenbatuta ditugu berriro elkartzeko geratzen diren egunak, zu ikusteko irrikatan gaude.*

*Hemen gauzek berdin jarraitzen dute. Aitak kezkatuta jarraitzen du meategitik kaleratzen*

*hurrengo bera izango delakoan. Ni berriz lanean buru-belarri nabil, gero eta gutxiago geratzen zait-eta Londresera ikastera joateko behar ditudan sos guztiak lortzeko. Amak, berriz, alboko etxean lana lortu du goizetan, garbiketa lanak egiten. Zurbik ere hazi eta hazi ari da. Ikusiko duzu zelako neskatxa eginda dagoen, berriz elkartzen garenean. Zu berriz ikusteko zain gaude. Erantzun ahal bezain lasterren.*

*Muxu bat*

Malko bakan batzuk orrialdeko bolalumaren tintaren gainera jauzi dira. Hasperen egin, eskuekin maitekiro malkoak lehortu eta, eskuak sabelaren gainean ditudala, begiak ixtearekin batera, loak hartu nau. Igaro da 9125. eguna.

### **Hirugarren kapitulua**

Arratsaldeko sei eta erdiak pasatxo dira, azken oihalak pilatu eta etxera bueltatzeko ordua. Erosketak gordetzeko gurditxoa hartu eta, Savukak lagunduta, herriko plazara joan naiz bertako azokara.

—Zer da horko hori? —galdetu diot Savukari, nire eskuarekin kale amaierako hormara begiratuz.

—Iragarki bat ematen du. Interesgarria dirudi, goazen ikustera!

Hanka puntetan jarri eta iragarkia irakurtzen hasi gara:

*Hurrengo hilean Ingalaterrako Londres hirira joateko asmoa dut ikastera. Han bizitzeko apartamentu bat partekatu nahiko nuke beste ikasle batekin Oxford unibertsitatetik gertu. Bi logela indibidualez gain, bainugelaz eta sukaldeaz hornituta dago. Interesa duenak hots egin dezala 643563234 telefonora eta egin, mesedez, Alesharen galdera.*

Eta beste lanen bat aurkitzen hasten banaiz? Garbiketa lanetan? Amari hainbeste diru eskatzeak... Buruari hamaika buelta eman dizkiot iragarkiari begiratzen diodan bitartean.

—Nyasha! Lo hartuko duzu horri begira! Ez al zara konturatzen beste iragarki merke bat dela? Seguru asko lelo horietakoren bat izango da, gazteei dirua lapurtzeko azpikeriekin.

Egia esan, bai! Hobe nuke ideia txoro horretaz ahaztu eta eguneroko errutinara itzultzea. Momentuko erokeria bat besterik ez da atzerrira ikastera joatea. Orain arte inork egin ez badu, nola egingo dut, ba, nik? Gainera, neska izanda! Erosketen gurditxoa hartu eta etxerako bidean gara Savuka eta biok.

Afaldu eta ohean sartu naiz, eskuak buruaren atzean jarri ostean, postura egoki bat bilatuz. Beharbada, nire burutazioarena esan egin beharko nieke gurasoei, atzerrira ikastera joatea, edo ez? Behin eta berriro egin diot egunean zehar galdera hau nire buruari eta behin ere ez zait erantzun garbirik etortzen. Bai, bihar goizean jaiki eta, gosaritako orduan, familiaren aurrean nire erabakia azalduko dut, ausardia osoz.

## Laugarren kapitulua

—Gaur asteartea izanda, lehenengo hiru orduak harria tailatzen emango duzue. Ondoren, gimnasioan bi ordu libre utziko zaizkizue zeuok nahi duzuen ariketak egiteko. Bazkaldu ondoren, bakoitzak bere gelan emango du arratsaldea; horretarako, liburu bana emango zaizue entretenitzeko.

Argi eta garbi esan du buruzagiak. Eguneroko legez, goizean eguneko agindua eman eta bakoitza bere lanetara, beste behin ere.

—E, Dhen! Oker ez banagok gaur hiri tokatzen zaik tailatzeko zutabeak ekartzea, ezta?

—Bai, bai. Oraintxe joango nauk, egon hadi lasai! Aspertzeko adina asti badiagu eta! Kar, kar, kar! —erantzun diot Zerbeki, oraindik ere bere iseka aurpegiari erreparatuz.

Jadanik hemen bizi garela esan nezake. Bi hamarkada pasatxo igaro dira nire etxetik atera nindutenetik, nire familiaren babesetik. Azkar esaten da, bai, 25 urte luze hormigoizko hormaren beste aldean, mundutik at. Urte luze hauetan ez dut aparteko gauzarik egin, eguneroko ekintza ohikoenak bakarrik. Duela urtebete kartzela honetara ekarri gintuzten, Vicor Verster izenekora hain zuzen. Urte asko Robben uhartean igaro ondoren, ondo etorri zen aldaketa bat, askatasunerako atetik pauso bat gertuago egotea zirudiena. Urtea igaro da, baina gauzak ondo joateko oraindik lan asko dagoela egiteko dio Nelsonek. Bera nire adiskide handietako bat izateaz gain, bizitza osoan alboan edukiko dudana pertsona da. Egia esan, Mandela bezala da ezaguna. Geure arrazakoen eskubideak aldarrikatzen aritzeagatik, ziega madarikatu honetara sartu gintuzten, bizitza ongi markaturik utziko digun zerbaitetara kondenaturik, geure ingurukoengandik aldentuz. Gu bioz gain, Zerbek eta beste zazpi lagun gaude hemen, geure mundu txiki honetan, askatasunerako atea behin betirako irekiko duen giltzaren zain.

## Bosgarren kapitulua

Melokotoizko mermeladak zapore gozoa du. Esetan busti eta barrura. Gaur bestetan baino goizago esnatu naiz, esan behar dudana ongi pentsatzeko eta seguru nagoela ziurtatzeko. Ahoan dudana irentsi eta hasperen luze handi bat egin dut:

—Bada bi urte lanean hasi nintzela. Baina...

Kaka! Ez dakit nondik jarraitu.

—Zer, ba? Aspertu egin al zara, Nyasha? —galdetu dit amak aurpegi kezkatuarekin. Nahi baduzu, alboko frutategian langile bat behar dutela entzun dut. Nahi baduzu...

—Ez, ez da hori —egia esateko garaia heldu dela uste dut—. Atzo arratsaldean, Savukarekin batera erosketak egitera joan nintzenean, iragarki bat ikusi genuen. Ingalaterrara zihoala ikastera eta bertan apartamentu bat banatu nahi zuela zioen. Aspaldidanik darabilkit buruan kanpora ikastera joateko ideia, eguneroko errutinatik

irteteko eta bizitzan zerbait berria egiteko. Hortaz, Londresera ikastera joateko baime-na eskatzen dizuet –gorputza hoztu egin zait, barrua erlaxatzearekin batera. Alde bate-ra begiratu, bestera, eskuak izerdi hotzez hezeak ditut. Nire begien dirdirak erantzun baten zain daude. Minutu bateko isilunea Zerbekek eten du:

—Ama, eskolara noa, berandu egingo zait eta! —esan du kezkatu aurpegiarekin, motxila janzten duen bitartean—. Lasai, hamaiketakoa hartu dut eta eguerdian etorri-ko naiz etxera.

Bizitzan gogoratzen duzun momentu txar horietako bat da oraingoa. Baiezko eran-tzunarengandik urrun, alde onik ez diot ikusten egoerari eta amore ematekotan nabil. Txorakeria bat dela aitortuko dut.

—Horrela esanda, ba... ez dakit... hainbesteko gogoia baldin badaukazu... zergatik ez? —aitak, hori esatearekin batera, amaren begietara so egin du, bertan erantzun bat egongo zelakoan.

—Nyasha, egia esan neska langilea zara eta zeure ametsa hori bada, orduan...

Bi musu eman dizkiot bakoitzari eta egun berri bat hasi dut.

### **Seigarren kapitulua**

*Halaxe da, Margin. Azken berriek diotenez, Pollsmoor gartzelan preso dagoen Nelson Mandela MK talde armatuko sortzaile eta buru den ekintzailearen kartzela egunak bukatze-ardaudela dio De Klerk Hego Afrikako presidentea. Honako adierazpenei, Hego Afrikako bel-tzen aurka dauden Apartheid aldekoek, aurre egin diete, presidentea oker dagoela esanez eta “Mandela bezalako terrorista baten aurrean errenditzen ari dela” azpimarratuz. Azkenik, berek dioten bezala, herria gobernatzeko orain duten moduak norabide garbirik ez duela esan dute.*

—Kabroiak! —moztu du Shukek, irratia-aren bolumena erabat jaitsiz—. Bada garaia ohartzeko herria izorratzea dela beren helburua, beltzak zapaltzea!

—Lasai, ez asaldatu! —erantzun dio Nelsonnek, esku bat kokotsera eramanez eta ondoren esan behar duena ongi pentsatuz—. Ez al zarete ohartzen berek hori nahi dutela? Guk berekiko gorrotoa erakustea, horrekin batera aitzakia bat edukitzeko gu hemen kartzelan usteltzeko... Zerbait egiteko garaia iritsi dela uste dut, baina lasai ibili behar dugu, zuhurtzia osoz, berek baino zuhurragoak izanez. Pauso txikiak emanez iristen da helmugara, bai, pauso txikiak baina tinkoak emanez, baina betiere akatsik egin gabe.

Arreta jarri diot bere hitzei. Bere hitzak entzun ahala, nire baitan gogoeta egiten aritu naiz, dena ulertzen saiatzen. Oraingoan ere, zerbaitegatik dela gure liderra eta herri hau gobernatzeko gizon aproposa dela erakutsi digu; bere pentsamendua gugan-dik haratagokoa da, errealitatean eta ondoren etorriko den egoeran pentsatzeko gaita-suna du, salgai ez dagoen gaitasuna.

## Zazpigarren kapitulua

—Orduan, zer? Iristean emango dizkidazu edo e-mail bidez bidaliko dizkidazu?

—...

—Ederki. Besterik ez bada... Gero arte!

Eskuineko botoiari eman eta deia eseki dut. Bidaiarako egiteke ditudan zereginak amaitzen nabil, azken agiriak betetzen; gero eta gutxiago falta baita beste kontinentera abiatzeko. Hots egin didana aurrerantzean nire pisukidea izango dena zen. Bolaluma hartu eta azken hitzari tatxoi bat egin diot; dena eginda dago. Klik! Maleta pixka bat behartu ondoren, pijama jantzi eta ohera noa.

\*\*\*\*\*

—Inor ez dago zelatan. Tira, behar dituzun guztiak hartu eta goazen leku madarikatu honetatik, pentsatzeak bakarrik neure onetik ateratzen nau eta!

—Lasai, ziegetako giltza hartzea bakarrik geratzen zaigu. Presoak beren gelatatik atera eta libre utziko ditugu... —erantzun dio, besteak esan dituen hitzei malezia uki-tua emanez.

Pauso luzeak emanez, kartzelako korridore ilunean urrundu dira, burdinazko barraz hornitutako leihoetatik sartzen den ilargi beteak argitzen dituelarik.

Zalapartak iratzarri nau. Alboetara begiratu eta militar itxurako hiru gizonek altxatzeko eta mugitzeko oihukatzen digute ahots zakarrez. Zerbek bere onetatik atera eta azalpenak eskatzen hasi zaie, erabat asaldaturik. Isildu egin da eta, eskuak buruaren atzeko aldean jarrita, ziegatik irtetear dago, haietako batek prakako poltsikotik pistola bat atera duela ikusita. Beldurturik nago, zer pasatzen da? Nor dira tipo hauek? Nola egongo ote dira Mandela eta beste lagunak? Ziegatik atera eta korridore osoa presoz betetarik dagoela ikusi dut. Jende multzoan gizon bat nabarmendu da bere altueragatik. Mandela ikustean, pixka bat lasaitu naiz, ez dakit, babesa ematen didala sentitu dut. Egoeraren zergatia bilatzen dihardut, ez dakit-eta buruan zer darabilten militar moduan jantzita dauden arrotzek.

—Tira! Has zaitezte banan-banan kamioietara igotzen. Mugitu! —egin du oihu ibilgailuaren ondoan dagoen gizon bibotedunak. Ibilgailura sartzen ari naizela, begiratu zorrotz bat egin dit bibotedunak, gorputza behetik gora zeharkatu didan begiratu zitala. Bihotza erabat azeleratu zait, atsedetik hartu gabe, masailetatik behera izerdi hotza jarioka dudala. Segundo batzuetako begirada trukaketa izan da.

—Hau azkena! —esan du ozen, niri begirada kentzen zidan bitartean. Bi ate handiak danbada batean itxi eta martxan jarri gara, inork ez daki nora. Bidaian aurrera goazela, geure artean hitz eginez goaz, zurrumurruka, ibilgailuaren aurrealdean doazen bi gizon arrotzek ez entzuteko moduan. Haiek hitz egiten hastearekin batera, denok isil-

du egin gara, egoera honen zergatia jakiteko asmotan.

—Bahuen garaia! Hauek eramaten ditugunean, geure ordainsaria jaso eta ospa!

—Isilik egon hadi! Non amaituko duten jakitea ez badek nahi. Ni beren lekuan banengo... honezkero galtzetan kaka eginda egongo ninduan, beldurraren beldurrez.

—Non amaituko ditek, bada? —galdetu dio gidariaren ondoan doanak, ezer jakin-go ez balu bezalako aurpegia jarriz—. Beste espetxe batean edo?

—Hi haiz, hi, tontolapikoa! Ez egidak esan oraindik ez dakiala zein den plana. Ez diat berriz errepikatuko; hortaz, adi entzun ezak, memelo! —erantzun dio gidariak harrotasunez—. Geuk hiriaren kanpoaldean dagoen plataforma batean utziko dizkiagu, bertan geure kideek fusila ditzaten. Geure etsaiak dituk! Gure herriaren arerio arrisku-tsuenak dituk Mandela eta bere kideak.

Hori entzutean, pentsamendua atzerantz joan zait, esnatu didatenean bi arrotz haien elkarrizketa gogoratzeko ahaleginetan. Hain ondo ez ulertu arren, elkarrizketaren noranzkoa harrapatu diet. Labur esanda, hauek dioten moduan... geureak egin du.

Begiak ireki ditut, biak batera. Alboetara begiratu dut, asaldaturik, arnasa kontrolik gabeko erritmoan hartzen dudala. Pijama blai dut, izerditurik; eskuak, berriz, dardara biziz mugitzen zaizkit. Amets bat izan da, amesgaizto bat, nire anaiaren egoera islatzen duen errealitatezko amets bat. Pijama lehorra jantzi eta berriz ere ohean sartu nahiz. Beharbada, hura bisitatzeko eguna aurreratu beharko genuke, bere hutsune handia sentitzen baitut nire baitan.

### **Zortzigarren kapitulua**

Hanka puntetan jarria nago Zerbeken bizkar gainetik Mandelak duen paper zatia ikusteko. Jende multzo bat gaude Mandelaren inguruan, berak irakurketa amaituko duen unearen zain:

—Dakizuen bezala, aurrerapauso handiak egiten ari gara gure askatasuna lortzeko bidean. Eskutitz honen arabera, hau izan daiteke askatasunaren giltzetako bat —erantsi du. Gu, berriz, erabat jakitun gaude, berak dioena adi-adi entzunez—. Gehiegi luzatu gabe, Victor Versterko kartzelara eramán behar gaituzte.

Isilunea zen nagusi Robben uharteko kartzelako 301. ziegan. Mandelak eman zuen berria ona ala txarra ote zen galdetu nion neure buruari. Nire ustean, ona zen, baina besteen aurpegi zurrinak ikusirik, ez nekien zer pentsatu. Zerbekek dioen bezala, beste urrats bat da honakoa, baina Mandelaren hitzek ere argi uzten dute, Hego Afrikako presidentearekin elkartzeko aukera badagoela, geure ideiak eta asmoak berari garbi azaltzeko.

\*\*\*\*\*

Lehengoarekin ezin da alderatu: handiagoa, garbiagoa, instalazio hobeak... Victor

Versterk kartzela Robben uhartekoa baino hobea dela diogu denok. Mandela, berriz, ziegetako arduradunarengana joan da hitz egitera, guk gure gauzak ziegetara eramaten ditugun bitartean. Lehenengoan ez dio kasurik ere egin: txorakeria bat dela eta presidentearekin hitzartzea ezinezkoa dela esan dio Mandelari. Sutu beharrean, geuregana etorri da bere asmoen berri kontatzera. Arduradunarekin inolako aukerarik ez dugula jakinik, afalorduan Dhen eta berak komunera joateko plantak egingo ditugula adierazi du, kartzelako buruarekin hitz egiteko aukera izateko. Hau entzundakoan, bakoitza bere gelara joan gara.

Zazpi orduko bidaia luze joan zait eta, atsedean pixka bat ongi etorriko zaidalakoan, ohe gainean bota dut neure burua Plaust! Sabaira begira nagoela, familiakoak etorri zaizkit burura, etxeakoak. Egia esan, denbora pasa da beren berri ez dudala eta eskutitz bat idazteko garaia dela iruditzen zait ama haserretu baino lehen. Ahoan irribarre bat atera zait amarekin gogoratzerakoan; balekite zenbat botatzen ditudan faltan...

*Kaixo, familia:*

*Egun hauetan hainbeste istorio izan dut, zuei idazteko astirik ere ez dut izan.*

*Lehendabizi, non nagoen galdetuko duzuela pentsatzen dut. Galdera horren erantzuna Victor Versterk kartzela da, bertara heldu berriak gara. Robben uhartean geundela, eskutitz bat heldu zitzaigun kartzela honetara ekarriko gintuztela esanez. Aldaketak on egin digula dirudi, gauzak ongi irteten ari dira eta, bestetik, zuengandik gertuago nago bisitatzera etor zaitezten.*

*Honezkero, zuek ere entzungo zenuten presidenteak guri buruz eginiko azken adierazpenak. Berak dioenez, gure kartzela egunak amaiera bidean daude eta horren aurrean Apartheidaren aldekoek bereak eta bi esan dituzte gure aurka. Mandelari kasu eginez, presidentearekin hitzartzen saiatuko gara, geure asmoen berri emateko ahaleginetan.*

*Amaitzeko, zuek ikusteko irrikatan nagoela esan nahi dizuet, faltan botatzen zaituztet eta.*

*Besterik gabe, laster elkar ikusiko dugulakoan.*

*Dhen*

Orri zatia gutunazalean sartu eta mahai gainean utzi dut, ni berriz ere ohean etzaten naizen bitartean.

### **Bederatzigarren kapitulua**

Gaur beste egunetan baino goizago jaiki naiz, korrika saio bat egiteko. Londresko unibertsitatean gimnasiako klasea edukiko dudala kontuan izanik, aurrez forma pixka bat hartzea ez zait gaizki etorriko. Auzoari pare bat buelta eman eta etxean naiz berriro, arnasestuka. Buzoia ireki dut, egunkaria hartzeko asmotan, baina gaurkoan, egunkariak gain eskutitz bat ere ikusi dut, tolestuta. Sukaldera joan eta denen aurrean irakurtzeari ekin diot.

—Noiz etorriko da Dhen etxera? —galdetu du Zerbekek, irakurtzen amaituta.



—Badakizu zer? Laster bera bisitatzera joango gara alboko herrira eta zeuk marrazki bat emango diozu, bai? —erantzun diot begietara begiratuz. Umea dela kontuan izanda, zaila egiten zait berari geure egoera azaltzea. Askotan, bera bezalakoa izan nahiko nuke, errealitateari bizkarra emanez, dena bera bakarrik konponduko balitz bezala.

Eguerdia da. Zerbek lo kuluxka egitera joan da eta gurasoekin eskutitzari buruz hitz egiteko aprobe txatu nahiko nuke tartetxo hau. Dhen ikustera noiz joango ginatkeen galdetu diet eta erantzun didate bihar joango garela Wellingtonera, bertan baitago Victor Verster kartzela.

### **Hamargarren kapitulua**

Uste baino luzeago egin zait bidaia. Kartzelako segurtasun neurriak igaro eta Dhenekin bildu gara. Aulkian eseri eta geuri begira jarri da, ziegetako zaindaria gela-ko atea ixten duen bitartean. Denok besarkatzera arrimatu gara, aurpegietan emozioak eragindako malkoak ditugularik. Emozioak lasaitu eta, bakoitza bere aulkian esertzearekin batera, berriketan aritu gara.

—Ez dut sekula hainbesteko emozioa sentitu neure barnean —esan diot aitari, kartzelatik irteten garen bitartean.

—Merezi zuen bisitan etortzeak. Gauzak ondo doazela ikusirik, orduan eta alaiago sentitzen naiz —erantzun dit amak, erabat hunkiturik.

Azkenaldian, Hego Afrikan Mandela eta bere kideak askatzearen aldeko ekintza ugari ari dira egiten eta horrek asko lagundu dezake presidentearen erabakian.

Dhen ongi eta animatuta dagoela jakiteak erabateko bultzada eman dio geure familiari; izan ere, hainbat urtez sufritzea egokitu baitzaigu Dhen Robben uhartean zegoen garaietan. Bestalde, Apartheidaren aldekoek botere handiagoa zuten eta beltzen aurkako eraso gehiago egiten zituzten gaur egun baino. Autoan sartu eta etxeranzko bideari ekin diogu, geure aurpegietan poztasuna ageriz.

### **Hamaikagarren kapitulua**

—Zeri ari zara begira? Berandu iritsiko zara! —egin dit amak oihu, bidaiarako jateko zerbait prestatuz—. Iristen zarenean, hots egin! A! eta ez ahaztu noizean behin eskutitz bat idaztea!

Aireportuan aitari agur esan eta hegazkineko besaulkietako batean eseri naiz, hegazkina noiz aireratuko zain. Burua atzerantz bota eta loak hartu nau, inguruan zeuden bidaiarien joan-etorriek axola ez balidate bezala.

Hegazkineko pilotuaren ahotsak iratzarri nau:


—Lur hartzeaz gaude, lotu ondo segurtasun uhalak eta itzali sakelakoak. Eskerrik asko!

Hegazkineko leihotik begiratu eta, lurra gero eta gertuago dugula ikustearekin batera, urduri jarri naiz. Nire aulkian ongi eseri eta aurrera begira jarri naiz, noiz lur hartuko dugun zain.

Gauza guztiak aulki batean utzi eta ondoan dagoen janari dendarra joan naiz moka-  
du bat jatera, Alesha nire bila etortzen den bitartean. Patata frijituak erosi ostean, prentsa ere bazegoela ohartu naiz eta egunkari bat erosi dut. Patata poltsa esku batean eta egunkaria bestean ditudala, maletak utzi ditudan aulkian eseri naiz Alesharen zain. Patatak ahoan sartzen ditudan bitartean, gaurko titularretako bat irakurtzearekin batera, erabateko ilusioak eta poztasunak zeharkatu dit nire gorputza:

*Hego Afrikako De Klerk presidenteak Mandela eta bere kideak aske utzi ditu 27 urteko kartzela zigorraren ostean, 1990eko otsailaren 2. egun honetan.*

***Ander Orbañanos***



*Xabier Atxega*

# Ez hadi erratu

Goizeko seiak, maletak leporaino beteta. Gure eskuetan ezkontza-eraztunek dir-dir egiten dutelarik, Bilborantz goaz, Madrilerantzko hegazkina hartzera.

\*\*\*\*\*

Horrenbeste itxarondako egun hori igaro da, laztana. Orain zeurea naiz, zu nirea zaren moduan. Apaizak esan zuen bezala, *Heriotzak banantzen zaituzten arte*. Eta ez naiz damu, ezta damutuko ere. Ene bizitzaren txinparta zara. Munduko gizonik zoriontsuena naiz momentu horietan, zu nire alboan baitzaitut... Ezin dezakezu imajinatu zenbat maite zaitudan. Gure bizitzako bidaiarik onena izango delakoan nago. Ni, behintzat, saiatuko naiz inoiz ahantz ez dezazun.

\*\*\*\*\*

Ordubetea, Madrila iritsi gara eta orain beste hegazkin bat hartuko dugu. Zu aireportuko denda batean koloniak begiratzen ari zaren bitartean, hemen nago, kafetegian, kafeari birak ematen. Kristalaren ertz batean ikus zaitzaket, beno, zu ez, zure isla, aingeru batena dirudi... Zuri begiratzean ezkon-eguna datorkit gogora. Nire bizi osoan ahaztuko ez dudana ezkon-eguna.

## 1992ko maiatzak 16, larunbata

Elizara iristean, bihotza bizkortzen ari zitzaidala nabaritu nuen. Aldarean zain egon nintzen momentua eternitatea bezain luzea egin zitzaidan. Eternitate hori pasatzean, elizako ate nagusia zabaldu zen. Han zegoena ez zinen zu, amabirjina baizik! Soineko zuri, luze, eta eder batentzat, are ederragoko emakumea, paparrean lepokoa zenuelarik, zuganako dudana maitasunaren erakusle, dirdira bizian. Hain zinen ederra non zure inguruan argi bat piztu zela zirudien. Ez zitzaidan sekulan halakorik gertatu. Momentu hartan zu eta ni soilik geundela iruditzen zitzaidan. Zu zure soineko zuriarekin eta eskuarteko lore sortarekin, eta ni aldare aurrean zuri begira. Begiradak gurutzatu genituen eta segurtasuna igorri zenidan irribarre fin batekin. Nik ere irribarrea itzuli nizun. Organotik notak dantzan irteten zirela ohartu nintzenerako, zu aitaren besotik helduta niregana hurbiltzen ari zinen.

Konturatzerako *Bai, nahi dut* bana esana genuen eta nire arrebak ekarri zizkigun dir-dir egiten zuten eraztunak behatzetan finkatuak genituen. Musu sakon bat eman nizun eta gogor besarkatu ninduzun.

Jarraian mundu guztia hurbildu zitzaigun, arroza eta loreak bota ostean besarkada bat eman eta ZORIONAK opatzera. Egia esatea nahi baduzu, ez nintzen ohartzen nor etortzen zitzaidan eta nor ez, ez nintzen ohartzen ezta zer ari zen gertatzen... Baina horrek zer axola zuen, ba? Nik nekien gauza bakarra zure senarra nintzela zen.

\*\*\*\*\*

Megafonoetatik gure hegaldia irtetear dagoela diote. Han goaz berriz ere hegazki-nera. Oraingo honetan Sofiarako bidea hartuko dugu.

Hiru ordu eta hamar minutu igaro ostean, Bulgarian gaude eta, azkenean, iritsi gara hotelera. Ez da beste munduko ezer, baina tira, ez dago gaizki. Maletak ohe gainean utzi ditut eta besarkatu egin zaitut musu luze eta gartsu bat emanez.

Ezin dut sinetsi ikusten ari naizena! Ezkon-gaueko barruko arropa duzu soinean! Ui, ui, ui... Julen txikia badator!

Hori dun hori beroaldia neska! Ongi aritu zara gero! Azkenekoz horrela aritu zinen eguna datorkit gogora... Deklaratu nintzen egun hura...

### **1991eko ekainak 8**

Betidanik, deklaratzan nintzen eguna berezia izango zela esaten nuen. Zerbait berezia antolatuko nuela zuretzat. Eta ez hori bakarrik, ez nuen nahi, ohitura den moduan, eratzuna oparitzetik. Nik bestelako zerbait egin nahi nizun. Horregatik, egun batean amarengana joan nintzen, ea zer gomendatzen zidan galdetzera. Hark, berak zerbait berezia zuela esan zidan. Bitxi bereziren bat.

Orduan, amonaren medailoia ekarri zidan. Bere altxorrik preziatuena zela kontatu zidanean, begiak bete zitzaizkiola ohartu nintzen. Lepoko hura berezia zen. Amonak eman omen zion emakume bihurtu zen egunean *Hau gure familiako emakume guztiek eduki dituen. Har ezan, baina promes egin ieza dan ondo zainduko dunala. Eta ez hori bakarrik. Hi haiz daukadan alaba bakarra, hik hartuko dun oinordetzan eta hik emango dun. Baina ez hadi erratu oinordekoa aukeratzen. Ongi errepara ezan ingurura, datozenak aztertu. Hau zaintzea ez dun uste dunana bezain erraza. Kargu handia dun, eta bere segurtasuna ziurtatu behar dun. Ez ezan okerrik egin, mesedez. Horiek izan omen ziren gure amona Gregoriren hitzak. Izan ere, emakume jatorra zen eta argia, baina zerbait esan behar zuenean... Zuzenean esaten zuen. Ez zion axola besteek zer pentsatzen zuten, ez zioenaz ezta egiten zuenaz; adinaren eragina omen zen, esperientziak egiten duena...*

Eta zergatik ematen zidan niri medailoi hori? Zergatik ez zuen gordetzen Nahia rentzat? Galdetu egin nion. *Begira ezak. Bazekiat hi nire semea haizela, eta baduala arreba bat, baina amak esan zidan bezala, ongi erreparatu ditiat nire ingurukoak, ongi aztertu eta, nahiz eta asko kostatu, azkenean erabaki diat nork zain dezakeen behar bezala. Hortik aurrera ezin diat ezer gehiago esan. Ez nuen zipitzik ulertzen... Baina, tira, zer axola zuen? Medailoi hori inoiz ikusi nuen gauzarik ederrena zen. Badakit kurtsia geratzen dela, baina egia da. Eskuarte hartu nuenean, gorputz osoan zehar, bizkar-hezurretik barrena, hotz-ikara latza sentitu nuen. Zergatik? Batek daki zergatik... Eta orduantxe ohartu nintzen amak esan nahi zidanaz. Zuretzat egina zegoen. Zu ikustean sentitzen nuena islatzen zuen lepoko hark. Nola edo hala, amak zure eskuetan amaitzea nahi zuen.*

Eta nik egin behar nuena egin nuen. Zuri pasatu nizun oinordekotza hori. Ezin nezakeen beste ezer egin. Banekien zuretzat egina zegoela. Eta norentzat hobeto zuretzat baino une horretan? Uste dudanez, egin nezakeen gauzarik onena egin nuen.

Egunak eta egunak pasatu nituen zure eskua nola eskatu pentsatzen... Hasiera batean, puenting egiten ari ginela, bai airean geunden bitartean eskatu nahi nizun. Bai, bai, badakit oso kurtsia dela, baina originala da, edo ez? Originaltasunetik pasatu egiten nintzela pentsatu eta inozokeriak alde batera uztea erabaki nuen. Azkenean, ez dakit zergatik eta nola, baina egun batez medailoiari begira nengoela, elkarrekin irteten hasi ginenean joaten ginen leize-zuloa etorri zitzaidan burura. Eta zergatik ez? Gainera, han igarotako egun haiek oroitzeak on egiten zidan eta, zuri berdin gertatuko zitzaizula koan, horixe pentsatu nuen. Berehala ekin nien prestaketei. Zuk oparitu zenizkidan manta gorria eta bion argazkia duen burkoa hartu nituen. Berrogei kandela eta beste zenbait gauza. Garai haietan jaten genituen marrubiez oroitu nintzen, txokolate beroan bustita, eta hori ere hartzea pentsatu nuen. Amari kanpin-gasa eskatu nion. Harrituta begiratu zidan, baina zertarako zen kontatu nionean, segituan ekarri zidan. Hain da ona gure ama... Horri laguntzeko, *champagne* frantsesa erosi nuen eta amaitzeko horrenbeste gustatzen zaizkizun arrosak erosi nituen.

Zure bila joan nintzenean, zure gelako leihoari begira geratu nintzen une batez. Bihotza lasterka, hankak dardaraka... Maite zaitut eta zintudan. Leihopeko hesi hartatik zure usaina nabari nezakeen, zure usaina eta zure larruaren leuntasuna... Ai, ene maitea...

Hasperen egin eta txirrina jo nuen. Ilargik ireki zidan atea.

Tarteka ohartzen nintzen Ilargi hitz egiten ari zitzaidala, baina ezin nuen kontzentratu esaten ari zitzaidanean, zuregan nuen nire pentsamendua, noiz jaitsiko ote zinen. Jaitsi zinen, beti bezain eder, soineko gorriarekin... Musu bat eman eta zure familia agurtu ostean, nire autora joan ginen. Afaltzera eramán zintudan. Eta nahiko ongi egon ginen ezta? Oroituko duzu seguruenik zerbitzaria, bigarren platerekin zetorrela, irris-tatu eta nola erori zitzaion guztia! Eta nola ez, Julen *gafearen* gainera dena! Aizu, baina ez zitzaidan gaizki irten, izan ere erdia soilik kobratu ziguten eta, egia esan, barre galan-ki egin genuen zerbitzariaren kontura!

Koban bai. Koban guztia ezin hobeto joan zen! Pentsatuta nuen bezala. Sorpresa handia hartu zenuen... Zure aurpegia ikusi besterik ez zegoen.

Nahikoa urduritasun pasatu nuen ordu haietan... Pausoa noiz emango pentsatu eta pentsatu. Azkenean ekin nuen. Eskua eskatu nizun.

—Laztana, begira iezadazu. Denbora asko igaro da koba honetara etortzen hasi ginetik.

—Bai... Arrazoi duzu. Oroitzen nola ibiltzen ginen? Ume batzuk ginen oraindik!

—Bai, egia da. Eta gauza asko pasatu dira orduz geroztik. Baina orain zera esan behar dizut... Zera, begira, nik asko maite zaitut eta nire bizi osoa zure alboan pasatu nahiko nuke... NAHI DUZU NIREKIN EZKONDU?

—Zer? Nola? —medailoiari begira geratu zinen

—Ea nirekin ezkondu nahi duzun.

—Nik? En... Zera... NOSKI BAIETZ, MAITEA! —eta nire besoetara salto egin zenuen, medailoia eskuarekin gogor estutuz.

—Benetan?

—Noski baietz. Bene-benetan!

Jarraian, medailoiarena kontatu nizun, nola nire arbasoen *kate* bat zen eta nola amak zuretzat eman zidan. Amonak amari eta amak niri esaniko esaldia errepikatu nizun. *Hik hartuko dun oinordetzan eta hik emango dun. Baina ez hadi erratu oinordeko hori aukeratzen. Ongi errepara ezan ingurura, datozenak aztertu. Hau zaintzea ez dun uste dunana bezain erraza. Kargu handia dun, eta bere segurtasuna ziurtatu behar dun. Ez ezan okerrik egin, mesedez. Gaua luzea izan zen, baina udako ekaitzetako tximistak bezain azkar pasatu zitzaidan. Baina esazu egia, berezia eta polita izan zen... Erabat ahaztezina, zureganako nire maitasun gartsua bezalakoa.*

\*\*\*\*\*

## 1952ko martxoak 2

Bilboko fakultatean ingeniari-tza ikasten ari zen garai hartan Pello Alvarez. Beti erakutsi izan du bere euskal zaletasuna, batez ere gaztaro hartan, bere ideiak partekatzen zituzten ikaskideekin batera euskara eta Euskal Herriaz hitz egiten zuen bakoitzean tripa-zorriak ipintzen zitzaizkionean. Bere lurraz hitz egitean, bere sentipenetan malenkonian aurki zitekeen. Nahi eta ezinaren arrastoa. Bere herria hondora nola zihoan ikusiz, jendeak nahi bai, baina zer egin jakin gabe...

Askok eta askok ziren euskara aurrera atera zedin nahi eta Euskal Herri libre batekin amesten zutenak, baina zer egin jakin gabe. Inork ez zekien, Alvarez eta fakultateko beste ikasle batzuek ez ezik. Pello eta bere ikaskideek aurrerapauso bat eman zezakete-la pentsatu zuten. Ez hori bakarrik, sinetsi ere egin zuten eta, arnas sakon bat hartuz, aurrera egitea erabaki.

Kurtsoko egunak joan eta etorri, planen bat pentsatu nahian ibili ziren, egun batean talde bat sortu eta zerbait egin ahal izateko esperantzekin jaiki ziren arte.

Egun hartan iluntasunean argia ikus zitekeen, ezinean ahalmena, sentipenetako malenkonian trikitixaren doinua entzun zitekeela ere ohartu zen Pello. Makina ordu hitz egiten pasatu ostean, hainbat aldiz burua nekatzean, kostata baina lortu zuten zerbait berria egin ahal izatea: Ekin sortu zen, ETaren lehen hazia. Baina, hala ere, ezin

egin zitekeen gauza askorik, euskaldunak zulo guztietatik erreparatuak baitziren, akatsik txikienaren zain espetxeratuak izan ahal izateko.

Isilpean aritu behar, baina Alvarezek eta taldekideek argi eta garbi zituzten euren helburuak. *Gure helburua ez da botere politiko propioa duen Euskadi bat bakarrik, horrekin ez da nahikoa. Botere politiko hau hizkuntza eta kultura arrotz baten zerbitzura egongo balitz, gure helburuetan porrot egingo genuke.* Benetako Euskal Herri aske bat. Hori zen nahi zutena eta Euskal Herriak benetan behar zuena.

\*\*\*\*\*

Ederki egin dut lo, gero! Begiak irekitzearekin batera eguna argitu zait. Zu nire bular gainean goxo-goxo zaudela ikusteak egun guztirako poz ikaragarria eman dit. Haurtxo txiki baten modura lo seko nire berotasuna aprobeztatuz...

Orain gosalduta ostean, Sofia bisitatzera goaz. Ea ze zapora geratzen zaigun...

\*\*\*\*\*

Gaurko eguna ez da beste munduko ezer izan, baina tira, nik behintzat ongi pasatu dut. Atzo, jangelan ezagutu genituen katalanak jatorrak dira, ezta? Xavi, behintzat, tipo legala da. Nahikoa barre egin dugu gaur bazkaltzeko orduan! Nola esaten zuen ba... *tu mi pan, tu mi pan* Ogia behar zuela, eta ogia behar zuela. Uste dut betirako lagunak egin ditugula Xavi eta Mercé.

Orain, iluntzen ari duen heinean, Hilton, bost izarreko hotelera goaz kataluniarrekin afaltzera.

Ai neska! Zergatik zaran horren ederra? Orain ere ezin ederrago... Soineko beltz pinpirin, takoidun zapatak, txal dotore hori... Eta zure aurpegia. Uneoro hipnotizatzen naute zure aurpegiaren edertasunak, zure masail gorrixkek...

Niregana hurbildu zara, eta zerbait esatera zoaz:

—Julen, laztana. Medailoia jarriko didazu mesedez?

—Noski, maitea, atsegin handiz.

Sinestezina! Baina zer du lepoko horrek? Magia da, magia betea. Lehen ezin ederrago zinen, edo hala uste nuen. Izan ere orain... Hitzik gabe utzi nauzu. Medailoi horrek... Zera... Beste ukitu bat ematen dizu, ukitu berezi bat.

Musu bat eman didazu. Benetan ari naiz, egunen batean bihotzekoak emango dit zukanako ditudan sentimenduen erruz...

Han dira Xavi eta Mercé, bagoaz eurengana. Taxi batean sartu eta Hiltonerantz goaz. Bi emakumeak hor zabiltzate, bata bestearen soinekoari begira, komentarioak egiten. Eta... bai... Medailoiaz ari zarete.



—Oye, Irati, pero ¿Qué preciosidad es esta? ¡Madre mía! ¿De dónde lo sacaste?

—¿Te gusta? Es el medallón con el que Julen me pidió matrimonio. Es una herencia familiar.

—Pues, mujer, ya lo puedes cuidar bien, porque es una auténtica preciosidad y además te queda estupendo. No sé, tiene algo especial...

—Sí, tienes razón, pero no sé el qué...

Arrazoi du Mercék, zerbait berezia du... Zu zarela bere jabea! Zuk dena baino ederrago egiten duzula! Zuretzat egina dago, amak berak esan zuen, beno hori esan nahi zuela uste dut behintzat...

\*\*\*\*\*

### **2052ko martxoak 2, astelehena**

Botere politiko propioa duen Euskal Herria ez da nahikoa. Botere politiko hau hizkuntza eta kultura arrotz baten zerbitzura egon da urteetan zehar, Gernikako arbola nola igartzen zen begira... 1952, Kondor Legioa eta Aviazione Legionaria-ren sarraskiaren ondoren...

\*\*\*\*\*

### **1937ko apirilaren 26a, astelehena**

(Gernika)

—Gregori! Hator hona!

—Bai, ama. Zer behar duzu?

—Dei iezaion Mirariri eta hartu ezan hire anaiatxoa eta hoa bikien bila, ongi? Nik Peru eta Dolorekin izeba Xelextinarengana joan behar dinat eta.

—Bai, ama. Eta, bikiak hartu ostean, zer egin behar dut?

—Izeba eta biok azokan izango gaitun. Osabaren baratzeko barazkiak saldu behar ditinagu eta. Hi joan hadi hara.

—Ongi da, ama.

—Kontuz ibili, txiki!

—Bai, ama, ez izan zalantzarik!

Orain ere niri tokatu behar anai-arreben kargua... Baina tira, jada hamar urte ditut, eta bada amari laguntzeko garaia! Non sartu ote da Mirari hau... Ai... eta orain Joxe Mari negarrez... Ez mesedez... Zer ote du orain honek...

—Lasai, txiki, ez egin negarrik maitea. Hemen dago Gregoritzo... Lasai, politta

Han dator Mirari, baina zer kristo ari da orain... Ni baino urtebete gazteago besterik ez da eta ez du nik iaz egiten nuen lanen laurdenik ere egiten! Alferrik da neskato honekin...

—Mirari! Zer habil?

—Hara! Aupa, Gregori! Hire bila hari nindunan... Amak esan zidan hiregana joateko, Joxetxo eta Inazioaren bila joan behar omen dinagu, aita eta osabarekin omen zauden azken patatak jasotzen...

—Bai, bazakinat. Ni ere hire bila ari nindunan...

Joxetxo eta Inazio jaso eta amarengana... Hori jendetza dabilena gaur Gernikan... Astelehenak atsegin ditut. Izan ere azokarako jende mordoia etortzen da. Behiak, ardiak, zerriak, oiloak... denetarik jaisten dituzte baserritarrek, eta nik atsegin dut animaliekin jolastea!

Baina Gregori... ez geratu... Txikiak amari eraman behar zaizkio...

Hara! Joxe Marik lo hartu dit. Gizagaixoa, nekea zuen, beraz!

Peru honek nire onetik ateratzen nau! Ez dakit non kristotik irten den! Inazio gaitxoak ederrak jasan behar izaten ditu... Honek bai duela meritua!

Baina... Zer da orain? Zer gertatzen zaio jendeari? Denak lasterka...

—Gregori, zer gertatzen da?

—Ez dakit... Baina ez dut uste ezer onik denik... Mirari, heldu Peru eta Inazio. Ez banandu niregandik, INOR!

—Gregori, zer da hori?

—Hori, zer?

—Ez duzu entzuten soinu hori? Mirari, kezkatzen ari naiz...

### **2052ko otsailak 26, ostirala**

—Amona, zer duzu negarrez?

—Emozioa, laztana, emozioa...

—Zer duzu, ba?

—Begira, aitona Julenek gure ezkon-bidaian idatzi zuena aurkitu dut bere kaxoi azpian...

—Zer erromantikoa, ezta? Irakurriko didazu pixka bat?

—Noski... *Sinestezina! Baina zer du lepoko horrek! Magia da, magia betea. Lehen ezin ederrago zinen, edo hala uste nuen. Izan ere orain... Hitzik gabe utzi nauzu. Medailoi horrek... Zera... Beste ukitu bat ematen dizu, ukitu berezi bat...*

—Ze lepokotaz ari da?

—Urte asko dituen eta belaunaldi asko zeharkatu dituen lepoko honetaz...

—Amona! Baina, zer... Inoiz ez dut ikusi halakorik!

—Eta, promesa bat egiten badidazu zuretzat izango da ...

—Benetan ari zara?

—Baina, niri esan zidaten gauza bera esango dizut: *Hik hartuko dun oinordetzan eta hik emango dun. Baina ez hadi erratu oinordeko hori aukeratzen. Ongi errepara ezan ingurura, datozenak aztertu. Hau zaintzea ez dun uste dunana bezain erraza. Kargu handia dun, eta bere segurtasuna ziurtatu behar dun. Ez ezan okerrik egin, mesedez.*

—Amona, ez izan zalantzarik! Nik, orain arte inork zaindu duena baino hobeto zainduko dudala promes egiten dizut!

—Utzidazu janzten... Ai, ene Haira, hau bai miresgarria!

—Mila esker, amona! Zoragarria da! Ez zara damutuko niri pasatu izanaz.

—Nik ere badakit hori!

\*\*\*\*\*

Haira, 19 urteko neska gaztea; gaztea baina ameslaria. Antropologia ikasten ari da. Eta zaletasun berezi bat du: Gernika. Bai, Gernikarekin obsesionaturik dago azkenaldian. Lepoko hori jantzi zuenetik. Egun guztia Gernikako bonbardaketa gora eta behera, arbola dela eta ez dela. Azkenean, iritsi da unibertsitatetik arbola zaharra ikustera joateko eguna.

Gerturatzen ari dira batzar-etxera. Zergatia jakin barik, baina Hairaren bihotzean zerbait berezia dabil bueltaka. Bihotza berotzen ari zaio.

—Beno, hau da, ba, gure arbola. Normalean uzten ez duten arren, gaur aztertzeke aukera emango digute. Nor hasiko da?

—Ni! Ni hasiko naiz! —Hairak eman du lehenengo pausoa, intuizioak aginduta.

—Aurrera, Haira.

Gerturatu da zuhaitzera, barrena nahasten ari zaio. Kirioak dantzan jartzen, bihotza azeleratzen. Zuhaitza ukitu du eta, segituan, alboko harrian grabatua dagoen irudiari begira geratu da. Ezagun egiten zaio... Irudi hori lehen ere ikusi du... Ikusi bakarrik ez, irudia sentitu egiten du.


Eskua bularrera eraman du oharkabea, eta, medailoia, irakiten dago! Kamiseta azpitik atera eta begira geratu da. Nolatan ez da ohartu? Medailoiaren irudia da! Askatu eta harrira gerturatu du... Perfekzioan doitu dira... Baina, ziplo erori da...

\*\*\*\*\*

Esnatu da. Lagunez inguratuta dago. Ezer jazo ez balitz bezala, ongi sentitzen da, ezin hobeto.

Batzar-etxetik jendea irten da, jende garrantzitsua. Hitz batzuk ezpainetan: *Azkenean, iritsi da eguna!* Hairari zerbait esan nahi dio horrek. Burua biratu du, arbolarri begira geratu da: bai, adar berriak hazi zaizkio...

***Goiuri Unanue***



*Lore Iburguren*

# Denbora asko igaro da

Denbora asko igaro da  
zu joan zinenetik,  
zure falta sumatzen dut  
barren-barrenetik.  
Zugan pentsatzen dut  
gu utzitako egunetik,  
mila muxu eta besarkada bat  
Euskal Herri aldetik.

Pasatakoa aspaldi pasa zen,  
baina ez da erraza ahazten,  
uneoro hor zaude,  
ondokoei laguntzen.  
Ni ere hemen naukazu,  
distantziatik idazten,  
ez ezazu sekula etsi  
eta saiatu aurrera joaten.

*Ander Atorrasagasti*

# Amari zuzenduta

Txikitatik babestu  
eta maitasuna eman,  
gauza asko erakutsi  
eta haserreak jasan.  
Ez al da, ba, egia  
mundu osoan zehar  
ez dagoela beste pertsonarik  
xamurtasun eta maitasun guztia eman,  
eta ezertxo ere eskatzen  
ez duena bueltan?  
Eskerrik asko denegatik ama,  
beti eramango zaitut nire bihotzean.

*Ekiñe Miralles*

